



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko urriaren 13a

66 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Nafarroako abelbideei buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari buruzko Foru Lege proposamena (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- “Tormenta 97” izeneko maniobren noranokoari buruzko galdera, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzeke proiektuaren administrazio-egoerari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- Tuteran dagoen Hizkuntza Eskola Ofizialari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Nafarroan energia eolikoak duen garapenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Nafarroako Parke Eolikoaren egoerari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Emakumeari Arreta egiteko Planari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (20. or.).
- Beste ikasketak (lizentziaturak, doktoretza tesiak) egiteko liberatuen kopuruari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (21. or.).
- 1997-98 ikasturtean zenbat pertsona dauden liberatuta eta zein kontzeptupean liberatu diren itauntzeko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (21. or.).

- Toki entitate eta kirol elkarreentzako kirol instalazioetan inbertsioak egiteko dirulaguntzen deialdiari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (22. or.).
- San Adriango Osasun Zentroari atxiki zaion Andosillako Medikuntza Kontsultategiari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- Radio Televisión Española-k Nafarroan duen lurralde-zentroaren programazioari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).
- Aurrekontu berrietan Nafarroako Unibertsitate Publikoa behar dituen bitartekoez hornitzeko aurreikusitako neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuaren osasun-datuen eguneratze zerbitzuaren kanpo esleipenerako espedienteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Noingo Osasun Etxeko pediatri azterketa zerbitzuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Gizarteak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkulariei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- “Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako kapital transferentziak” izeneko 13620-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- “Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako dirulaguntza” izeneko 13530-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako abelbideei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1997ko irailaren 29an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako abelbideei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako abelbideei buruzko Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1997ko urriaren 31ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako abelbideei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN ADIERAZPENA

Lurralde honetako foru araubidearen indarrez, Nafarroak eskumen osoa du abelbideen gainean, horrela adierazita baitago Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren

10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.h) artikuluan.

Eskumen historiko hau baliatuz, Nafarroak arautegi ugari onartu ditu abelbideak babestu eta zaintzeko asmoz.

Garai bateko Nafarroako Foru Diputazioko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren aginduz, Daniel Nagore ingeniari-zuzendari jaunak lan jori eta eraginkorra egin zuen Nafarroako abelbide ia gehienak identifikatu eta mugatzeko. Lan horren ondorioz, 1924. urtean "El Libro General de Cañadas" argitaratu zen eta, urte batzuk beranduago, Abeltzaintza Sustatzeko Erregelamenduan "abelbideei buruzko xedapenak" bildu ziren. Erregelamendu horren Testu Bategina Nafarroako Foru Diputazioaren 1943ko irailaren 15eko Erabakiaren bidez onetsi zen.

Lurraldea babestu eta erabiltzeko Eskualdeko Hirigintza Arauei buruzko apirilaren 10eko 6/1987 Foru Legea izan zen Nafarroako abelbideei hirigintza babeserako araubide juridikoa eman zien lege mailako lehenbiziko araua, 29. artikulua bitartez hain zuzen. Babes araubide horri egun indarra duen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeak eman dio jarraipena.

Bestalde, bai Basa Fauna eta haren habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzko maiatzaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 75. artikuluan, bai lurzoru ez-urbanizagarrietan barnako ibilgailu motoredunen zirkulazioa arautzen duen otsailaren 14ko 36/1994 Foru Dekretuan, ardibideei buruzko zenbait manu bildu dira, inguruabar sektorialago batetik aztertuak badira ere, ehizaren ikuspuntutik edo ibilgailu motoredunen zirkulazioaren ikuspuntutik hain zuzen; ardibideak esan dugu, hori baita gure antolamendu juridikoan "abelbideak" izendatzeko erabiltzen den beste esamolde arruntago bat, haren baliokidea.

Berriki, Estatuak martxoaren 23ko 3/1995 Legea onetsi du, Abelbideei buruzkoa, oinarritzko araubide juridikoa ezartzen duena.

Kontuan harturik Nafarroan badugula ardibideak arautzeko aspaldiko arautegi bat (1943. urtea baino lehenagokoa), bai eta abelbideak hirigintza-aren ikuspuntutik babesteko zenbait foru lege ere, eta ikusirik Estatuak oinarrizkotzat hartu duen Lege horrek gure araubide foral eta historikoan izan dezakeen eragina, beharrezkoa da Nafarroako abelbideak babestu eta erabiltzeko araubide berariazkoa testu bakar batean biltzen duen arautegia onestea. Arautegi bakarra, gure administrazio ohiturak eta egungo beharkizunak uztartzen dituena.

Era honetan, Nafarroak duen eskumena erabiliz, Foru Komunitatearen esku jarriko da arautegi erabilgarri bat, gure betiko abelbide, zeharbide, pasabide eta adarrak gorde, zaindu eta behar bezala eta egoki erabiltzen direla bermatzeko.

Abelbideak zaindu eta kontserbatzearen inguruko administrazio eginkizun eta ahalmenak banatuta daude hiru departamenturen artean: Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzakoa, Ekonomi eta Ogasunekoa eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurakoa. Lehenbizikoari Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako Departamentutik Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura eginkizunak eskualdatzeko abuztuaren 11ko 221/1995 Foru Dekretuaren eta ondoko arauen bidez egin zen berrantolaketa administratiboaren ondorioz dagozkio eskumen horiek; bigarrenari, Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeak jabari publikoko ondasun higiezin gainean ematen dizkion eskurantzaren ondorioz, hori baita abelbideen izaera juridikoa eta, hirugarren departamentuari, azkenik, Nekazaritzako Egituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legearen indarrez, lurzatien berrantolamenduaren arloan, bereganatu dituen ahalmenetatik.

Foru Lege honek lau titulu eta atariko bat ditu. Atariko honek abelbideen definizioa eman eta abelbide motak zehazten ditu eta, azkenean, ondasun horiek jabari publikokoak direla deklaratu du.

I. Tituluan, abelbideen gaineko administrazio ahalmen eta eskumenak bildu eta antolatzen dira, arlo honetan eskumenen bat duten Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen jarduketak errespetatu eta harmonizatu nahian. Foru Legean bildu diren alderdietatik garrantzitsuenetarikoa bat abelbideen mugaketari, desafektazioari eta trazadura aldaketari dagokiena da. Prozesu horietan guztietan segitu beharreko jardunbidea finkatu da eta denetan aurreikusi da entzutea ematea hartu beharreko administrazio ebazpenak

uki ditzakeen interesatu guztiei, beti ere interes publikoa bermatzearen.

Bestalde, gure egungo bizimodua kontuan harturik eta abelbideen egoera ikusita, erabilera eta jarduera araubide bat aurreikusi da, jarduera bate-ragarri eta osagarriak egin ahal izateko, ingurugiroarekin harmonian, beti ere abereen pasaera oztopatu gabe eta ondasun horietarako beste foru arau batzuetan ezarrita dagoen babes araubidea errespetatuz eta, hala badagokio, osatuz.

Ahalegin berezia egin da lege testu honetan arau-hauste eta zehapenen sailkapen bat egiteko, honelako ondasun publikoak ukitzen dituzten bes-telako zehapen araubideekin eta martxoaren 23ko 3/1995 Legearekin bat datorrena, era honetan abelbideen inguruko zehapen araubide osoa arautegi bakar batean bilduko baita.

Azkenik, Nafarroako Abelbideen Sarea eratu da, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak kudeatuko duena. Horren ondorioz, Departamentuak egun dauden abelbideen kalifikazioa eta berrikuspenera egin beharko du eta, ondoren, sailkatu, abeltzaintza, natura edo aisialdiaren ikuspuntutik duten interesaren arabera.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege honen xedea da Nafarroako abelbideak babesteko araubide berariazkoa ezartzea, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzerari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.h) artikuluan Nafarroari aitortzen zaion eskumen osoa erabiliz.

2. artikulua. Definizioa.

Foru Lege honen ondorioetarako, abelbideak izanen dira abereak eramateko erabili izan diren edo erabiltzen diren bide edo ibilbideak.

3. artikulua. Abelbide motak.

1. Nafarroako abelbideak honela sailkatzen dira: ardibideak, zeharbideak, pasabideak eta adarrak. Horiez gain, abelbideei loturiko atsedengune eta ur-askak ditugu, izen horiek adierazten dituzten erabileretarako direnak.

2. Ardibideak Nafarroako abelbide garrantzitsuenak dira, udako larreguneak eta neguko artzantzatokiak elkartzen dituztenak. Horien zabalera gehienekoa lauorgeri metrokoa izanen da.

3. Zeharbideak berrogei metro zabal baino gutxiago diren abelbideak dira; pasabide eta ada-

rren zabalera, aldiz, hogeita hamar metrokoa da gehienez.

4. artikulua. Izaera juridikoa.

Abelbideak jabari publikoa duten ondasunak dira, Nafarroako Foru Komunitatearenak, eta, horrenbestez, besterezinak, preskibiezinak eta bahiezinak dira.

I. TITULUA

Abelbideak sortzea, mugatzea eta administratzea

I. KAPITULUA

Administrazio ahalmenak

5. artikulua. Administrazio ahalmen eta esku-goak.

1. Abelbideei dagokienez, honako ahalmen eta eskugoak ditu Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak:

a) Abelbideen erabilera arautzea eta antolatztea.

b) Abelbideen azaleraren osotasuna defendatzea, lur sailen bat abelbideari dagokiolako ustea dagoenean, horren egoera aztertzeko eskubidea eta beharra baititu.

c) Abelbideak sailkatu, mugatu, zedarritu eta desafektatzea eta, behar denean, handitu eta birrezartzea.

d) Abelbideen erabilera publikoa bermatzea, dela abereak eramateko erabiltzen direnean, dela beste jarduera bateragarri eta osagarrietarako erabiltzen direnean.

e) Abelbideak eta abelbideei zuzenean loturiko gainerako elementuak, ingurugiroaren edo kulturaren ikuspegitik baliosak direnak, egoki mantentzen direla bermatzea, beharrezko diren babes eta errestaurazio neurriak hartuz.

f) Abelbideak babestu, zaindu eta hobetzeko bestelako jarduketak.

2. Abelbide bakoitzaren erabilerak sailkatu eta arautzeko ahalmena Nafarroako Gobernuari dagokio, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak proposaturik, eta jendaurrean jarri ondoren.

Abelbideen egoera eta titulartasunari, horien mugaketari eta desafektazioari buruzko ikerketak egiteko ahalmen eta eskugoak Ekonomi eta Ogasun Departamentuari dagozkio.

Lurzatiaren berrantolamenduak egiteko ahalmena Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dagokio.

Aurreko zenbakiarekin lotura duten gainerako ahalmen eta eskugoak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagozkio.

II. KAPITULUA

Sailkapena, mugaketa eta zedarritzea

6. artikulua. Sailkapena.

Sailkapena abelbide bakoitzaren izaera, zabalera, trazadura eta gainerako ezaugarri fisiko orokorrak zehazteko administrazio egintza da, deklarazio izaera duena.

7. artikulua. Mugaketa.

1. Mugaketa abelbideen mugak zehazteko administrazio egintza da, sailkapenaren egintzan finkatutakoari jarraikiz.

2. Mugaketa espedienteari erantsi beharko zaio, nahitaez, okupazio, bidegabeko sartze eta lurzati mugakideen zerranda.

3. Mugaketa espedienteari Ekonomi eta Ogasun Departamentuak emanen dio hasiera, ofizios edo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zein Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eskaturik. Hasi ondoren, entzutea emanen zaie kasuan kasuko toki entitatei, lurzati mugakideen jabeen, jakinarazi ondoren, eta ingurugiroa edo abelbideak babesteko helburua duten erakunde edo talde interesatuei. Azken horiei jakinarazteko iragarkia argitaratuko da Nafarroan hedadura handia duen egunkari batean. Mugaketa espedienteari hasiera emateko ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Mugaketa espediente onestea Ekonomi eta Ogasun Departamentuari dagokio. Horren ebazpena interesatuei jakinarazi beharko zaie eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta haren aurka helegitea jarri ahalko da Nafarroako Gobernuan.

4. Mugaketa onetsita, Jabetza Erregistroan bazterreko idazpen bat egin beharko da, hirugarren bati eskualdatzen baldin bazaio Hipotekei buruzko Legearen 34. artikuluan azalduriko fede oneko babes araubideari atxikitzerik izan ez dezan.

8. artikulua. Zedarritzea.

1. Mugaketa onesteko egintza administrazio bidean irmo bilakatu ondoren, abelbidea zedarritzeari ekinen zaio. Horretarako, interesatuei, lur-

zati mugakideen jabeei eta ukituriko toki entitateei deituko zaie, hamabost egun lehenago gutxienez, zedarritze-lanera bertaratu daitezten eta egoki juzkatzen dituzten oharrak egin ditzaten.

2. Zedarritzea administrazio prozedura bat da, abelbideen mugak finkatu eta muga horiek lurra- ren gainean betiko adierazteko xedea duena.

3. Zedarritzeko ekitaldian behar den akta jasoko da, lan horretan parte hartzen duen Administrazioaren teknikariak sinatu beharko duena. Bertan, abelbidearen nondik norakoa adieraziko da, errez identifikatzeko moduan, eta, halaber, zedarr- rien kokagunea.

4. Mugarri edo zedarrak harrizkoak izanen dira eta bertan "Abd." adierazgarria idatziko da.

III. KAPITULUA

Desafektazioak eta trazaduraren aldaketak

9. artikulua. Desafektazioa.

1. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, Ingu- rugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak edo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eskaturik, abelbideeta- ko zenbait eremu jabari publikotik desafektatu ahalko ditu, Foru Lege honen II. Tituluan aipatu diren erabilera lehentasunezko, bateragarri edo osagarrietarako ez direnak hain zuzen.

2. Desafektazio espedientea jendaurrean jarri- ko da hilabete batez eta epe horretan Foru Komu- nitateko Administrazioaren departamentu ukituei, toki entitate ukituei, Nafarroako Nekazaritzako Ganbarari, nekazaritzako lanbide erakundeei eta ingurugiroa edo abelbideak defendatzeko helburua duten erakunde edo taldeei entzutea emanen zaie.

3. Desafektatu diren edo desafektatuko diren lur- rak Nafarroako Foru Komunitatearen ondare ondasunak izanen dira eta, xedearen ondorioeta- rako, interes publikoa edo soziala lehenetsiko da.

10. artikulua. Trazaduraren aldaketa.

1. Interes publikoagatik eta, salbuespen gisa eta ongi arrazoitu ondoren, baita interes partikula- rragatik ere, desafektazioa aurretik eginda edo espediente berean eskatuta, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak baimena eman dezake abelbide baten trazadura aldatu edo desbideratzeko, beti ere azaleraren osotasuna, ibilbide eta trazaduren egokitasun-maila, abereen pasaera eta jarduera horrexekin bateragarri eta osagarri diren gainera- ko erabilerak bermatzen baldin badira.

2. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak jen- daurrean jarriko du hilabete batez trazaduraren aldaketa eta epe horretan Foru Komunitateko

Administrazioaren departamentu ukituei, toki enti- tate ukituei, Nafarroako Nekazaritzako Ganbarari, nekazaritzako lanbide erakundeei eta ingurugiroa edo abelbideak defendatzeko helburua duten era- kunde edo taldeei entzutea emanen zaie.

3. Trazaduraren aldaketa hirigintza planea- mendurako, lurraldearen antolamendurako edo lurzati- en berrantolamendurako tresna bat izapida- tzearen ondorioz egin behar baldin bada, aurreko zenbakian aipatu den jendaurreko aldiaren orde- ze beste informazio bide bat erabiliko da, horrelako hirigintza tresnak tramitzeko Lurraldearen Anto- lamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legean eta Nekazaritzako Egituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1984 Foru Legean aurreikusita dagoena hain zuzen.

4. Kasu guztietan, bidearen aldaketa bat pro- posatzen dutenek beste trazadura bat ere propo- satu beharko dute, azaleraren osotasuna, ibilbide egokia, trazadura etenik egonen ez dela, abere- en pasaera eta gainerako erabilera osagarri eta bateragarriak alde aurretik bermatu beharko dituen.

11. artikulua. Trazadura herrilanengatik aldatu beharra.

1. Abelbideen lurretan herrilan bat egitea proiektatzen denean, jarduten duen Administra- zioak bermatu beharko du trazadura alternatiboak mantenduko dituela abelbidearen aurreko ezau- garriak, abereen pasaeran eta ibilbidean etenik egonen ez dela eta gainerako erabilera bateraga- rri eta osagarriak bidezkoak direla.

2. Abelbideak trenbideekin edo errepideekin gurutzatzen direnean behar adina pasabide pres- tatuko dira, sestra berekoak zein bikoak, abereak laster eta eroso igaroteko modukoak.

12. artikulua. Mugarriak berriz jartzea.

Abelbide baten trazadura aldatzeko espedien- tea irekita, hartarako baimena ematen bada, eskatzailearen ardura izanen da trazadura zaha- rretik berrira mugarriak eraman eta bertan para- tzea, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak mugarriak jartzeko modu eta tokiaren inguruan emanen dituen irizpideei jarraikiz eta, beti ere, onetsi den espedientean adierazten denari lotuz.

II. TITULUA

Abelbideen erabilera eta jardueren araubidea

13. artikulua. Erabileren araubidea.

Abelbideei emanen zaizkien erabilerak Foru Lege honen 2. artikuluan zehazten den definizioa- ren ondoriozkoak izanen dira. Hortaz, abereen

igarobide izateaz gain, hori baita berezko erabilera, jarduera horrekin bateragarri edo osagarri diren beste erabilera batzuetarako ere erabil daitezke, abelbideak kaltetzen ez badira.

14. artikulua. Berezko erabilera.

Abelbideen berezko erabilera abereen pasaera da.

Abere transhumanteek bazkatu, ura edan eta gaua eman ahalko dute libreki abelbideetan, baita ondoko atsedenguneetan ere, transhumantzian daudela.

15. artikulua. Erabilera bateragarriak.

1. Abeltzaintzako jarduerarekin bateragarriak dira, abereen igarotzea eta abelbidea bera kaltetu gabe, egin daitezkeen gainerako erabilera tradizionalak, nekazaritzaren ingurukoak badira eta okupazioaren izaera juridikoa ez badute.

Herrien arteko komunikabideek eta, zehazki, nekazaritzako ibilgailuek eta makineriak errespetatu beharko dute abereek duten bide-lehentasuna eta ebitatu beharko da abereak desbideratu beharra edo pasaera luze geldiaraztea. Abelbideak erabiliko ahalko dira finketara iristeko.

Salbuespen gisa, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak baimena eman ahalko du nekazaritzarakoak ez diren ibilgailu motoredunak zirkulatzeko (erabilera berariazkoa eta zehatza izanen da hori), salbu eta abereak pasatzen ari direnean eta interes ekologiko edo kulturala duten abelbideetatik igarotzeko denean.

2. Landaketa linealak, haize-babes gisakoak, edergarriak eta antzekoak ere erabilera bateragarriak izanen dira, abereen pasaera normala oztotzen ez duten heinean.

16. artikulua. Erabilera osagarriak.

1. Abelbideen erabilera osagarritzat hartzen dira ibiltzea, paseatzea, zaldiz ibiltzea eta antzekoak eta motorerik gabeko ibilgailuetan zirkulatzeta, beti ere abereen bide-lehentasuna errespetatzen badute.

2. Erabilera osagarri horiei dagokienez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aldi baterako mugapenak ezarri ahalko ditu, erabilera horiek ekosistema sentiberekin babesarekin bateraezinak direnean edota sute arrisku handiko basoak edo espezie babestuak daudenean.

17. artikulua. Babes araubidea.

1. Abelbideen babes araubidea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994

Foru Legearen 35.3 artikuluan ezarritakoa izanen da.

2. Abelbideak egokitu, zaindu edo hobetzeko lanei loturiko jarduera, eraikin eta instalazioetarako baimena eman ahalko da.

3. Halaber, landaketa eta basoberritze lanak baimenduko dira, abelbideetarako aurreikusi diren erabilerekin bateragarriak baldin badira.

18. artikulua. Aldi baterako okupazioak.

Interes publikoarengatik eta, salbuespen gisa eta arrazoitzen bada, interes partikularrengatik, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak baimena eman dezake abelbideen aldi baterako okupazioak egiteko edo lur horietan instalazio muntagarriak paratzeko, okupazio edo instalazio horiek abereen pasaera oztotatzen ez badute eta gainerako erabilera bateragarri zein osagarriak galarazten ez badituzte.

Baimen hori lortzeko, interesatuak eskaera sartu beharko du kokatu nahi duen lekuari dagokion udalerrian eta honek Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari helaraziko dio eskaera, aginduzko txostenarekin batera. Departamentuak, hilabete batez jendarean jarri ondoren, bidezko ebazpena emanen du eta ukituriko udalerrinari eta interesatuei jakinaraziko die.

Edozein modutan ere, aldi baterako okupazio horiek hamar urtetik beherakoak beharko dute izan, ondoren berriro daitezkeen arren.

Okupazioa aldi baterako izanen dela eta lurra bere jatorrizko egoerara itzuliko dela bermatzeko, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eskatu ahalko du okupazio-gileak banku abal bat jar dezan, edo onartuta daudenetik beste edozein berme-mota, instalazioen balioaren ehuneko hogeia adinakoa.

19. artikulua. Administrazio baimenerako prozedura.

Lege honen 17 eta 18. artikuluetan aipatu jarduerak baimentzeko prozedura Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 42. artikulutik 44.era bitartean araututa dago.

III. TITULUA Arau-hauste eta zehapenak

20. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Foru Lege honen aurkako egintzek eta ezegiteek administrazio izaerako erantzukizuna sor-

tuko dute, erantzuleei bide penalean, zibilean edo bestelako batean eska dakizkiekeena galarazi gabe.

2. Arau-haustean parte hartu dutenen parte-hartze-maila norainokoa izan den jakiterik ez dagoenean, erantzukizuna solidarioa izanen da, erantzukizuna beren gain hartu dutenek beste partehartzaileen aurrean errepetitzeko duten eskubidea galarazi gabe.

3. Ez da inolaz ere bi zehapen ezarriko egintza berberarengatik, babestu nahi den interes publikoa berdina baldin bada, baina horri loturiko beste egintza edo arau-hausteengatik datozen erantzukizunak eskatu beharko dira.

21. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

1. Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

2. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Abelbideen mugak adierazteko erabiltzen diren mugarri, zedarri edo adierazgarriak, orohar, aldatzea.

b) Abelbideetako lurretan baimenik gabeko eraikuntza edo obrak egitea, edozein motatakoak direlarik ere.

c) Abereen pasaera edo onartu diren erabilera bateragarri edo osagarrietarik edozein egitea erabat tratatzen duten oztopoak jartzea edo berezko erabilera horietarako traba diren jardueretan aritzea.

d) Abelbideei kaltea edo galerak ekartzen dizkieten egintza edo ez-egiteak, haien erabilera galarazten dutenak eta, halaber, abelbideak okupatzea bidezko den administrazio titulua izan gabe.

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Abelbideetan luberritze edo landaketa lanak egitea baimenik gabe.

b) Abelbideen mugapean isurkinak edo hondakinak botatzea.

c) Abelbideetako arbolak bota edo moztea baimenik izan gabe.

d) Abereek erabiltzen ez dituzten abelbideetako fruitu edo produktuak baimenik izan gabe aprobetxatzea.

e) Abelbideetan aldi baterako instalazioak jarri edo obrak egitea baimenik izan gabe.

f) Foru Lege honetan aurreikusi diren polizia, ikuskapen edo zaintza lanak oztopatzea.

4. Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Abereen pasaera eta gainerako erabilera osagarri eta bateragarriak oztopatu gabe ere, abelbideei kaltea edo galerak ekartzen dizkieten egintza edo ez-egiteak.

b) Administrazio baimenetan ezartzen diren baldintzak ez betetzea.

c) Foru Lege honetan zehazten diren debekuak, erabat edo zati batean, ez betetzea eta, horien arabera, derrigorrezkoak diren jarduketak ez egitea.

22. artikulua. Zehapenak.

1. Arestian aipatu arau-hauste hauengatik honako isun hauek ezarriko dira:

a) Arau-hauste arinak, 10.000tik 100.000 pezeta bitarteko isuna.

b) Arau-hauste larriak, 100.001etik 5.000.000 pezeta bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso larriak, 5.000.001etik 25.000.000 pezeta bitarteko isuna.

2. Zehapenak jarriko dira arau-hausteak izan dituen garrantzi eta ondorioen arabera, pertsona eta ondasunen segurtasunari dagokionez, eta kontuan hartuko dira, gainera, ingurugiroaren gaineko eragina, erantzulearen inguruabarrak, norainoko errua duen, berrerorlea ote den, norainoko partehartzea izan duen eta atera duen onura.

23. artikulua.

1. Administrazio arau-hausteak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak ezarriko ditu.

2. Bidezko diren zehapen penal edo administratiboak galarazi gabe, arau-hausleak egindako kaltea konpondu beharko du. Konponketaren helburua izanen da, ahal den neurrian, abelbidea arau-haustea egin aurretik zuen egoera berbererantzuzte.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, subsidiarioki, kalteak konpondu ahalko ditu arau-hauslearen kontura. Dena den, arau-hauslea beharturik dago eragin dituen kalte eta galera guztiak ordaintzera, kasuan kasuko ebazpenean zehazten den epearen barruan.

3. Abelbideen araubide juridikoaren aurkako arau-hausteen zehapen prozedura eta zehapenen murrizketa Lurraldearen Antolamenduari eta Hiri-gintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea garatzeko apirilaren 3ko 85/1995 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Erregelamenduan xedatutakoari lotuko zaizkio.

4. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren eskumena da geroago eman daitekeen zehapen ebazpena eraginkorra izan dadin behar diren kautelako edo behin-behineko neurriak hartzea.

IV. TITULUA Nafarroako Abelbideen Sarea

24. artikulua. Sorrera eta kudeaketa.

1. Nafarroako Abelbideen Sarea eratu da, Nafarroan barna doazen abelbide guztiak hartuko dituen.

2. Nafarroako Abelbideen Sarearen kudeaketa Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eskumena da.

Xedapen Gehigarriak

Lehena. Abelbideak sortu, zehaztu eta administratzeari buruz, horien erabilera eta jarduerari buruz eta disziplina araubideari buruz Foru Lege honetan ezarritakoa abelbideei aplikatuko zaie, hirigintza planeamenduaren arabera, lurzoru ez-urbanizagarriaren sailean dauden bitartean.

Bigarrena. Abelbideak hirigintza planeamenduaren arabera hiri lurzorutzat edo lurzoru urbanizagarritzat hartuta dauden lurretatik igaroten badira, planeamendu horretan behar diren neurriak zehaztu beharko dira, ahal den neurrian, eraikinek edo instalazioek lur hori okupatu ez dezaten eta, halaber, trazaduran etenik egonen ez dela eta ibilbidea egokia dela bermatzekoak.

Hirugarrena. Foru Lege honetan aurreikusita ez dagoen orotan, Abelbideei buruzko martxoaren 23ko 3/1995 Legea aplikatuko da.

Xedapen Iragankorra

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Nafarroako abelbideen azterketa orokorra eta sailkapena egingen ditu, egun dituzten erabilera eta ezaugarrien arabera. Sailkapen horretan hiru talde egingen dira: abeltzaintzarako interesa duten abelbideak, interes naturalekoak eta aisialdirako interesekoak.

Xedapen Indargabetzailea

Nafarroako Foru Diputazioak 1943ko irailaren 15eko Erabakiaren bidez onetsi zuen Abeltzaintza Sustatzeko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 77.etik 111.era bitarteko artikulua indarririk gabe utzi dira eta, halaber, Foru Lege honetan ezarritakoari kontra egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapenak.

Azken Xedapenak

Lehena. Ahalmena ematen zaie Ekonomi eta Ogasun kontseilariari eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzaten.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra

B Saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari buruzko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

«Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 142 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 142.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguia

Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN ADIERAZPENA

Zuzenbideko Estatu guztien lehen xedea eta helburu nagusia da herritarren oinarrizko eskubideen babesa eta bortxaezintasuna bermatzea. Xede hori lortuko dela segurtatzeko, demokraziaren antolamendu juridikoak, bi mendeko bilakaera luze baten ondorioz, hainbat teknika eta erakunde sorrarazi ditu. Horrek bidea eman die alde batetik giza-eskubideen errespetuari eta erabilera askeari, eta bestetik Estatuaren jarduera eskubide

horiek babesteko formula batzuetara bideratzeari, beti ere Legearen barrenean.

Europako antolamendu juridikoetan, «Ombudsman»a da, zalantzarik gabe, herritarren eskubideak defendatzeko erakundeen artetik arrakasta eta zabalkunde handiena lortu duena. Erakunde hori Suediako 1809ko Konstituzioak instituzionalizatu zuen, eta gero herri eta estatu askotara zabaldu da (Finlandia, 1919an, Norvegia 1952an, Danimarka 1954an, Alemania 1957an, Ingalaterra 1967an, Frantzia 1973an, Espainia 1978an...).

Komunitate Autonomoek ere erakunde hori hartzeko bidea hartu dute Administrazio Publikoaren jarduera gainbegiratzeko, hain zuzen ere 1978ko Konstituzioaren I. Tituluan ezarritako eskubideak modu eraginkorrean babestearren: Andaluzia eta Katalunia 1984an, Euskal Autonomia Erkidegoa, Galizia, Aragoi eta Kanariak 1985ean, Valentziako Erkidegoa 1989an, Balearrak 1993an, eta Gaztela eta Leon 1994an. Oinarrian, horiek guztiek Gorte Nagusiek Herriaren Defendatzaileari buruzko Lege Organikoan ezarritako ereduari jarraitzen diote. Lege Organiko horrek garatu ditu Konstituzioaren 54. artikulua. Garapen hori Herriaren Defendatzailearen eta Komunitate Autonomoetako antzeko erakundeen arteko harremanak arautzeko azaroaren 6ko 36/1985 Legearekin osatuko da.

Nafarroak eskumen osoa du bere Foru Erakundearen osaketa, eskurantzak, antolakuntza, jardunbidea eta araubide juridikoa arautzeko. Foru erakunde horietako bat Nafarroako Parlamentua da (Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikulua).

Eskumen horren indarrez, Foru Komunitateak berezko erakunde bat sor dezake, Nafarroako Parlamentuaren menpean, Nafarroako Administrazio Publikoen eta haren menpeko organismo eta enteen jarduera administratiboa gainbegiratzeko (Nafarroak haien gaineko eskumen osoak erabili ditu, foru eraentzaren indarrez). Era horre-

tan, kasu bakoitzean modu eraginkor, erraz eta arinean defendatu ahal izanen dira antolamendu juridikoak nafar herritar guztiei ezagutzen dizkien banakako eskubideak.

Herritarren eskubideak defendatzea eta auto-gobernua, aipatu ditugu jadanik, ez dira erakunde hori Nafarroan sortzea zuzenesten duten arrazoi bakarrak. Komenigarria da erakunde hori sortzea ere, alde batetik Nafarroako Parlamentuaren tresna edo baliabide bezala Nafarroako Administrazio Publikoari, esperientziatik abiatuta, gizabanakoaren oinarritzeko eskubideekiko errespetu handiagoko jarrera izan dezan iradokitzeke, eta, bestetik, Komunitatearen Foru Zuzenbide zabala bertako herritarren askatasunaren alde zuzen aplikatu dadin zaintzen duen erakunde bezala. Bestela, gogoan hartzen bada Nafarroa antzinako komunitatea dela eta bere erakundeetako zutoinetan herriaren askatasuna sustatzen zuen Obanosko Infanzoiaren leloa agertzen zela ("Pro libertate patriae gens libera state"), bitxia izanen litzateke herritarren eskubideen erabilpena bermatzeko erakunderik ez edukitzea; are gehiago gero eta konplexuagoa eta dinamikoagoa den gizarte moderno batean, non askotan Administrazio Publikoek jendearen eskaerei eta interesei eskaintzen zaien arretak, pertsonen balio eta eskubideei buruz Konstituzioak ezagututakoa aintzat ez hartzeko edo bazter uzteko arriskua dagoen.

Orain sortzen den erakunde horri Herritarren Eskubideen Defendatzaile edo Artekari (bitarteko lanak egiten dituen, euskaraz) deituko zaio, izan ere oso izen esanguratsua eta Nafarroako antolamendu juridikoaren baitan duen funtsezko xede eta eginkizunen bereziki adierazgarria.

1. KAPITULUA **Estatutua eta eginkizunak**

1. artikulua.- Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailea Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, Nafarroaren eskumenen esparruan, herritarren banakako eskubideak eta eskubide kolektiboak defendatzeko, alegia, Konstituzioaren 1. Tituluan eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan biltzen diren horietan.

Ondorio horietarako, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren, Nafarroako Toki Entitateen eta zuzenbide publikoko entitateen eta enpresa publikoen edo horietako edozeinen menpekoen jarduera gainbegiratu dezake Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak.

2. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak Foru Legen honek ematen dizkion eginkizunak beteko ditu.

2. artikulua.- 1. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailea Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak hautatuko du bozketaren bidez, sei urteko aldi baterako.

2. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailea izateko, izangaiak unibertsitateko goi mailako titulua eduki behar du.

3. Hautatua izateko lehenbiziko bozketan gehiengo absolutua lortu beharko da. Gehiengo hori lortuko ez balitz, bigarren bozketa bat egingen da botu kopuru gehien lortu dituzten bi izangaien artean. Horren ondorioz, botu gehien lortutako izangaiak hautatuko da. Izangai bakarra balego, aski izanen litzateke bigarren bozketan gehiengo sinplea lortzea.

3. artikulua.- 1. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailea ezin izanen da kargutik kendu, agintaldia bukatzen ez bada, Nafarroako Parlamentuak ukoa onartzen ez badio edo ezintasuna, bateraezintasuna nahiz betebeharren ez-betetze larriak gertatzen ez badira, beti ere Nafarroako Parlamentuko kideen bi herenek hala irizten badiote.

2. Agintaldia bukatzen denean, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak bere eginkizunetan jarraituko du harik eta bere ondorengoa karguaz jabetzen den arte.

3. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailearen dirusariak Biltzarreko Aurrekontuaren kargura ordainduko dira, Nafarroako Gobernuaren kontseilarien ordainsarien araubide eta zenbateko berdinez.

4. artikulua.- 1. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak izanen ditu bere eginkizunetan laguntzeko.

2. Erakunde horren funtzionamendurako behar den dotazio ekonomikoak berariazko kontusaila izanen du Nafarroako Parlamentuko aurrekontuetan.

II. KAPITULUA **Prozedura**

Lehen atala **Ikerlanaren hasiera eta edukia**

5. artikulua.- 1. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak edozein ikerlan hasi eta jarrai dezake, ofozioz ala alde batek eskatuta,

Nafarroako Administrazio Publikoen eta haren eragileen egintza eta ebazpenak argitzeko, Foru Lege honen 1. artikulua aipatzen dituen eskubiak herritarrei errespetatzeari dagokionean.

2. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailearen eskurantzak zabaltzen dira Nafarroako Gobernuo kideen, agintarien, funtzionarioen eta Nafarroako Administrazio Publikoen eta haren menpeko ente edo enpresa publikoen zerbitzuan diharduen edozein pertsona edo organoren administrazio-jarduerara.

6. artikulua.- 1. Bidezko interesa aipatzen duen edozein pertsona natural nahiz juridikok jo ahal izanen du Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailearengana, murrizapen edo mugarik batere gabe. Ezin izanen dira horretarako oztopo izan ez nazionalitatea, ez erresidentzia, ez sexua, ez adin txikia izatea, ez legezko ezintasuna, ezta, oro har, Nafarroako Administrazio Publikoekiko lotura edo menpekotasun bereziko erlazioa izatea.

2. Foru Parlamentariak, banakako gisa, ikerketa batzordeak, Parlamentuko ohiko batzordeak eta, bereziki, Nafarroako Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordeak, zio eta guztizko idatzi baten bidez eskatu ahal izanen dute Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailearen esku hartzea, baldin eta Nafarroako Administrazio Publikoetan –haiek dituzten eskumenen esparruan– sortutako jarduera, ebazpen eta jokaera jakin batzuk ikertu edo argitu nahi badira, herritar baten edo herritar multzo baten eskubiak ukitzen dituztelako.

3. Inongo administrazio-agintaririk ezin izanen dio kexurik aurkeztu Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari bere eskumeneko gaiei buruz.

7. artikulua.- 1. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailearen jarduna ez da etenen Nafarroako Parlamentua bilduta ez dagoen aldietan, ezta desegiten denean edo agintaldia bukatzen denean ere.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitako egoeretan, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrera joko du.

Bigarren atala **Kexuen tramitazioa**

8. artikulua.- 1. Kexu guztiak interesatuak sinatuta aurkeztuko dira, eta zio eta guztizko idatzi baten bidez izen-deiturak eta helbidea adieraziko ditu, paper arruntean eta kexuaren oinarri diren

egiteateak ezagutu eta, gehienez ere, urtebeteko epean.

2. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailearen jarduketa guztiak dohainik izanen dira interesatuarentzat, eta ez da aginduzko izanen legelari edo prokuradorerik haietan egotea.

3. Kexu guztiei buruzko jasoagiri bat emanen da.

9. artikulua.- 1. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak, egiten diren kexu guztiak –haiek izapidatu zein atzera bota– erregistratuko ditu eta haien jasoagiri bat emanen du.

2. Kexu bat atzera botatzen bada, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak zio eta guztizko idatzi bat egingen du hari buruz, eta interesatuari esan ahal izanen dizkio zein diren bere jardunbidea aurrera eramateko biderik egokienak, halakoork bada irizten badio, interesatuak egoien irizitako erabiltzearen kaltetan gabe.

3. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak ez du banan-banan aztertuko epaia eman zain dauden kexuak edo Herriaren Defendatzaileari aurkeztu zaizkionak, eta bertan behera utziko du azterketa hori baldin eta behin jarduketa hasi ondoren, interesatuak demandarik edo helegiterik jartzen badu Nafarroako Administrazio Epaitegian, justizia epaitegi arruntetan edo Konstituzio Epaitegian. Horrek ez du oztopatuko, dena den, aurkeztutako kexetan planteatzen diren arazo orokorrei buruz ikertzen jarraitzea. Edozein kasutan ere, ahaleginak egingen ditu kasuan kasuko Administrazioak egin zaizkion eskaera eta helegitei buruzko erabakiak espreski hartu ditzan, dagokion garaian eta moduan.

4. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak kexu anonimoak baztertuko ditu eta baztertu ahal izanen ditu fede txarra, oinarri falta edo asmorik eza somatzen duen gainerakoak, bai eta izapideak berak hirugarren pertsonen eskubide legitimoari kalte eragiten diotenak ere.

5. Baztertzeko erabaki horien aurka ezin izanen da helegiterik jarri.

10. artikulua.- 1. Behin kexua izapidatzea onartu denean, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak bidezko ikerketa sumario eta informala sustatuko du kexuaren gorabeherak argitzeko. Beti ere, eskaeraren eduki substantzialaren berri emanen dio dagokion organismo edo egoitza administratiboari, hango nagusiak, hamabost egunen buruan, idatzizko txostena igor ditzan. Epe hori zabaldu ahal izanen da Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailearen iritziz

horretarako bidea ematen duten baldintzak gertatzen direnean.

2. Eskatu zaion hasierako txostena bidali behar duen funtzionarioak edo haren nagusiek txostena bidaltzeari ukoa ematen badiote edo arduragabekiaz jokatzeko badute, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak bere eginkizunen kontrako eta oztopagarri iritzi ahal izanen dio jarduera horri, eta hala emanen du jakitera berehala, kalifikazio hori urteko txostenean edo, halakorik bada, Nafarroako Parlamentuari igorritako txosten berezian agertuz.

Hirugarren Atala

Eskaria egiten zaien organismoak laguntza eman behar dute

11. artikulua.- 1. Nafarroako Administrazio Publiko guztiek laguntza eman behar diote Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari, lehentasunez eta presaz, haren ikerketa eta ikusketetan.

2. Kexu bat egiaztatu eta ikertzeko aldi edo ofizios hasitako espedientean, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailea edo hark eskuordetutakoa Administrazio Publikoaren, haren menpekoen edo hari atxikitako zerbitzu publikoen edozein egoitzetara joan ahal izanen da, behar dituen datu guztiak egiaztatzea, banakako bidezko elkarrizketak egitera edo beharrezko espedienteak eta dokumentazioa aztertzea.

3. Ondorio horietarako, ezin izanen zaio ikerketaren xede den jarduera edo zerbitzuarekin lotutako espedienterik edo dokumentazio administratiborik ukatu, Legeari jarraituz sekretu gisa sailkatutakoak salbu.

4. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak Foru Komunitatearen Administrazioari eta toki entitateei eskatu ahal izanen dizkie bere eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak, baita ezkutuko izaera dutenak ere.

12. artikulua.- 1. Baldin ikertu nahi den kexuak Administrazioaren zerbitzuko pertsonen jokamoldea, betetzen duten eginkizunari dagokionean, ukitzen badu, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak horren berri emanen dio ukitutakoari eta bere zuzeneko nagusiari edo ukিতua menpekoa den erakudeari.

2. Ukituak idatziz erantzunen du, egoki juzkatzen dituen dokumentu eta testigantza guztiak ekarri, ezarritako epean. Epe hori sekulan ez da izanen 10 egun baino gutxiago, baina emandako epearen erdia gehi dakioke, alde batek eskatzen badu.

3. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak dokumentu horien egiazkotasuna konprobatu ahal izanen du, eta ukitutako funtzionarioari datuak zabaltzeko elkarrizketa bat proposatu ahal izanen dio. Funtzionarioek elkarrizketa horri uko egiten badiote, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak eskatu ahal izanen die idatziz azaltzeko erabaki hori justifikatzen duten arrazoiak.

4. Funtzionario batek bere testigantzarekin ikerketari ematen dion informazioak ezkutuko izaera izanen du, ezertan kaltetu gabe delitu izaera izan dezaketen egitateen salaketari buruz judiziamendu kriminalari buruzko legeek ezarritakoa.

5. Nagusi hierarkiko edo organismoen batek bere agintepeko edo zerbitzuko funtzionarioari debekatzen badio Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailearen eskaerari erantzutea edo harekin hizketa egitea, funtzionarioari eta Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari berari bidalitako zio eta guztizko idatziz adierazi beharko du hori. Orduetik aurrera, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak behar dituen ikerketa-jarduketak aipatu nagusi hierarkikoaren bitartez eginen ditu.

Laugarren atala

Agintarien eta funtzionarioen erantzukizuna

13. artikulua.- Egindako jarduerak agerian uzten duten kexuaren sorburua funtzionario baten abusua, bidegabekeria, bazterkeria, errakuntza, arduragabekeria edo ez-egitea izan dela, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak ukitutakorengana jo dezake gaiaren inguruan duen iritzia azaltzeko. Egun berean idatzi horren berdina igorriko dio funtzionarioaren nagusi hierarkikoari, egoki irizten dituen iradokizunak azalduz.

14. artikulua.- 1. Administrazio Publikoaren zerbitzuko edozein organismok, funtzionarioak, agintarik edo pertsonak Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailearen ikerketa-jardunari kontra edo oztopo egiteari eusten badio, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak txosten berezi bat egin dezake horri buruz, urteko txostenean dagokion atalean hori azpimarratzeaz gainera.

2. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak dagokion Administrazio Publikoari eskatu ahal izanen dio ikerlanak oztopatu edo haiei aurka egiten dien Administrazioaren zerbitzuko organismo, funtzionario, agintari edo pertsonari eska diezazkion behar diren erantzukizun administratiborik.

15. artikulua.- Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak, bere karguaren eginkizunak betetzearen arian, delitu izan daitezkeen jokoera edo egitateen berri izaten duenean, berehala jakinarazi beharko dizkio Ministerio Fiskalari.

16. artikulua.- Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak, ofizioz, gobernu edo administrazio mailako agintari, funtzionario edo agente guztien aurkako erantzukizun-jarduketak burutu ditzake, baita toki administrazioko alorrekoen aurka ere, horretarako sekulan aurretiko idatzizko erreklamaziorik behar gabe.

Bosgarren atala Partikularrei sortutako gastuak

17. artikulua.- Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak informazioa emateko deitu dienean, kexu egin ez duten partikularrei sortu dizkien gastuak edo kalte materialak ordaindu eginen dira, aurrekontuaren kargura, behin behar bezala justifikatu ondoren.

III. KAPITULUA Ebazpenak

18. artikulua.- 1. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak Nafarroako Administrazio Publikoari administrazio-egintzak eta ebazpenak emateko erabiltzen dituzten irizpideak alda ditzaten eska diezaieke, haien jarduera Konstituzioan, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Estatu Espainiarrak berretsita oinarritzko eskubidei eta askatasunei buruzko nazioarteko akordioetan ezarritako eskubideen aldeko interpretaziorik zabalenera egokitzeko.

2. Egindako ikerketen ondorioz Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailea sinetsita bada go arau bat zorrotz aplikatzeak justiziaren aurkako edo hiritarren kalterako egoerak sortu ditzakeela, Nafarroako Parlamentuari edo xedapena egin duen Administrazioari hura aldatzeko eskatu ahal izanen dio.

3. Ikertzen ari diren jarduketak, administrazio egintzaren bitartez gaitutako partikular batek egindako zerbitzuengatik gertatzen badira, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak administrazio-agintari eskudunei eskatu ahal izanen die bere ikuskatzailetza eta zehapen eskumenak erabiltzeko.

19. artikulua.- 1. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak, egiten dituen ikerketak direla eta, oharpenak, gomendioak, lege-betebeharren gogorazpenak eta neurri berriak hartzeko iradokizunak egin ahal izanen dizkie Adminis-

trazio Publikoetako agintari eta funtzionarioei. Edozein kasutan ere, agintariek eta funtzionarioek idatziz erantzun beharko dute gehienez hilabeteko epean.

2. Behin gomendioak egin ondoren, ukitutako agintari administratiboak arrazoizko epe batean neurri egokirik hartzen ez badu zentzu horretan, edo Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari ez badio ematen neurri horiek ez hartzeko arrazoen berri, Artekariak gai horien aurrekariak eta aurkeztutako gomendioak jakinarazi ahal izanen dizkio Nafarroako Gobernuari edo ukitutako Administrazioaren agintari gorenari. Behar den justifikazioa lortzen ez bada, gai hori urteko txostenean edo txosten berezi batean agertuko du, jarrera hori erakutsi duten agintari edo funtzionarioen izenak aipatuz, eta beti ere Artekariaren iritziz konponbide positiboa izan zezaketen eta konponbide hori lortu ez den kasuen artean.

20. artikulua.- 1. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak egindako ikerketa eta kudeaketen emaitzen eta inplikaturako administrazioak edo funtzionarioak emandako erantzunaren berri emanen dio interesatuari.

2. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailearen eskuhartzea Foru Lege honetako 6. artikulua 2. zenbakian xedatutakoaren arabera hasi denean, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak lortutako emaitzen berri emanen dio eskaera egin duen foru parlamentari edo batzorde eskudunari, behin ikerketak bukatutakoan. Era berean, esku ez hartzea erabakitzen duenean, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak gaia bazter uzteko izan dituen arrazoen berri emanen du.

3. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak egindako ikerketen emaitza positibo edo negatiboaren berri emanen dio ukitutako agintari, funtzionario edo goitza administratiboari.

IV. KAPITULUA Urteko txostena

21. artikulua.- 1. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak urtero emanen dio Nafarroako Parlamentuari egiten duen kudeaketei buruzko txostena. Txosten hori Parlamentuaren aurrean aurkeztuko du ohiko bilkuraldiko bilkura batean.

2. Egitateen larritasunak edo presak horretarako bide ematen dutenean, Artekariak-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak ezohiko txosten bat aurkeztu ahal izanen dio Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrari, Parlamentua bildurik ez balego.

3. Urteko txostenak eta ezohiko txostenak, halakorik bada, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

22. artikulua.- 1. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak aurkeztutako kexen kopurua eta motak, eta horietatik zenbat utzi diren alde batera eta zergatik azalduko ditu urteko txostenean, bai eta zenbat kexu ikertu diren eta ikerketa horien emaitzak ere; gainera, Nafarroako Administrazio Publikoek onartutako iradokizun edo gomendioak zehaztuko dira.

2. Txostenean ez dira emanen ikerketa-prozeduran interesa dutenen datu pertsonalik haien identifikazio publikoa ez errazteko, Foru Lege honetako 14. artikulua 1. zenbakian xedatutakoaren kalterik gabe.

3. Txostenak eranskin bat ere izanen du. Eranskinaren hartzailea Nafarroako Parlamentua

izanen da. Eranskin horretan, erakundearen dagokion aldiko aurrekontuaren likidazioa agertuko da.

4. Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileak txostenaren laburpen bat azalduko du ahoz Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren aurrean. Parlamentari Taldeek ere parte hartu ahal izanen dute beren jarrera azaltzeko.

Xedapen Gehigarria

Nafarroako Parlamentuak Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzailearen antolamendu eta funtzionamendurako Erregelamendua onetsiko du.

Azken Xedapena

Foru Lege hau 1998ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

F Saila:
GALDERAK

“Tormenta 97” izeneko maniobren noranokoari buruzko galdera

XABIER VELEZ MEDRANO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak “Tormenta 97” izeneko maniobren noranokoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Xabier Velez Medranok, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Egunotan ari dira “Tormenta 97” izeneko ekintzaldia burutzen Bardeetan, Espainiako Aire Armadak egiten dituenetan garrantzizkoenari-koa, Espainiako Armadako teniente koronel den Nicolás Hijarrubia Garcíaren esanetan. Aipatu agintari militarren arabera, “Tormenta 97” ekintzaldia lau zatitan banatzen da: hedapena, misioak prestatzea eta armekin entrenatzea, jaurtiketa eta guztizko misioak eta ebaluazioa eta atzera egitea.

Aipatu ekintzetan instalazio “etsai” baten kon-
trako eraso bortitzaren itxurak egiten dira eta era-

bilitako armen artean dira AGM65-G Maverick misilak, laserrarekin gidaturiko bonbak, eta abar. Maniobrek, bestalde, Euskal Herriko beste puntu batzuetara ere helduko omen dira.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuak horren inguruan izan duen jarduketa ezagutzeko asmoz, horra galderak:

Nafarroako Gobernuak ba al du “Tormenta 97” izeneko maniobren noranokoari buruzko informazio zehatzik?

Gobernu honek pentsatu al du neurri politiko-
ren bat hartzea herritarren gehiengoaren gogoia errespetatu dadin, alegia, Bardeak inposaturiko okupazio militarra, egunotan areagotua, jasaten duen lurralde gisara ez erabiltzeko gogoia?

Nafarroako Gobernuak baloratu al ditu manio-
bra horien ondorioz sor daitezkeen ingurugiro-erag-
ina, eragozpenak eta istripuak?

Nola azal dezake Gobernu horrek Bardeetako
Antolamendurako Planaren aurrerakinak turismo
eta kirol erabilerak debekatzea troka eta sakane-
tan, higaduratik begiratzeko, eta aldi berean aipa-
tu ditugun manio-
bra militarrek egitea, komunikabi-
deek argitaratu informazioaren arabera,
behintzat?

Iruñean, 1997ko urriaren 1a

Foru Parlamentaria: Xabier Velez Medrano

Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzeke proiektuaren administrazio-egoerari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzeke proiektuaren administrazio-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoaren energia elektrikoa eramateko haritza eraikitzeari ekiteak talde ekologista baten salaketa erakarri du.

Ingurugiro eraginari buruzko azterketaren onarpena aipatzen da, hain zuzen, eta Nafarroako Gobernuo Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuaren eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzakoaren baimenak.

Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzeke proiektuaren administrazio-egoera dela-eta, hurrengo galderari erantzuna ematea eskatzen da:

1. Ba al du Nafarroako Gobernuak aipatu haritza elektrikoa eraikitzeke ezinbesteko den ingurugiro-eraginari buruzko azterketarik? Noiz aurkeztu du hori enpresa sustatzaileak?

2. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak onespina eman al dio aurreko galderan aipatutako ingurugiro-eraginari buruzko azterketari?

3. Nafarroako Gobernuaren ustez, Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzeke proiektuaren administrazio-izapideak betetzen al du uztailaren 19ko 229/1993 Foru Dekretuak, inguru naturalean egin beharreko obren plan eta proiektuen ingurugiro-eraginen gaineko azterlanak arautzen dituenak, ezarritakoa?

4.- Nafarroako Gobernuaren ustez, Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzeke proiektua sustatzen duen enpresak aurkeztu duen dokumentazioa bat al dator basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legeak ezarritakoarekin?

Iruñean, 1997ko urriaren 2a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Tuteran dagoen Hizkuntza Eskola Ofizialari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuteran dagoen Hizkuntza Eskola Ofizialari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregulamentuak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Tuteran dagoen Hizkuntza Eskola Ofizialeko oraingo ikasturtearen hasiera arazotsua izaten ari

da. Administrazioaren eskaintzarik ezaren ondorioz atzera botatako eskariez gain (10.000 eskarirako 3.475 postu baino ez direla eskaintzen ikustea besterik ez dago), Ingeleseko laugarren maila egin behar zuten ikasle batzuek ikasposturik eza ere gertatu da, ezinezko dela esan omen diete.

Hori guztia horrela, hauxe jakin nahi da:

1. Zer neurri hartu ditu edo hartzeko asmoa ditu Nafarroako Gobernuak ikaspostu edo ikastaro eskaintza eskatzaileen eskari edo interesei ahalik eta gehien egokitzeko (ehuneko ehun egokituko ez dela jakinik)?

2. Zer jarduketa, zer helburu eta norabiderekin, abiarazi ditu Gobernuak Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialaren aukerak garatzeko?

Iruñean, 1997ko urriaren 2a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Nafarroan energia eolikoak duen garapenari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroan energia eolikoak duen garapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregulamentu 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Natur baliabideen erabilpenari buruzko ikerketa eta garapenean azkenaldi honetan izan diren aurrerapenek energia-iturri garrantzitsuak izan daitezkeen sistemen artean kokatu dute haizea.

Gure Komunitatean zegoen errealitate honek otsailaren 26ko 125/1996 Foru Dekretua onestera bultzatu zuen Nafarroako Gobernua. Dekretu horrek parke eolikoek ezarpena arautzen zuen; hain zuzen, horrelaxe deitzen zaie haizearen bidez energia lortzeko instalazioei.

Ondoren, eskaturiko parke eolikoek kopuru handiak bai ingurugiro-ikuspegitik bai paisaiarenetik ere gure Komunitatean garrantzi handia duten eremuak erabili beharra ekartzen zuenez, parke eoliko berriak ezartzeko plan eta proiektuak onestea eten egin zuen Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu baten bidez ere.

Eten honek ez zituen ukitu aurretik Nafarroako Gobernuari aurkezturiko plan eta proiektuak, eta horien aldaketa, berrikuspene eta onespene jada-

nik aipaturiko 125/1996 Foru Dekretuaren arabera ebazten dihardute.

Nafarroan energia eolikoak duen garapenari dagokionez, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1.- Zenbat enpresa sustatzaile izan dira baimenduak Nafarroan Parke Eolikoak ezartzeko? Zenbat Parke baimendu zaio bakoitzari? Horieta-ko bakoitzak zenbateko potentzia osoa, megawatt-etan, jarriko du?

2.- Baimendu den potentzia instalatuarekin Nafarroako Energia Planak egindako energia-ekoizpenari buruzko aurreikuspenak bete al dira?

3.- Zer neurri hartzea aurreikusten du Nafarroako Gobernuak ingurugiroak parke eta kable elektriko gehiegi jasatea ekiditeko?

4.- Nafarroako Gobernuak ba al du borondate-rik energia eolikoaren garapenaren alde gure Komunitateak eginiko apostua parke eolikoak modu ordenatuan ezarriz eta denbora guztian natur baliorik garrantzitsuenak bermatuz gauzatu dadin ekimenen bat sustatzeko?

5.- Izan al du Nafarroako Gobernuak kontakturik Estatuko Administrazioarekin nazio-mailako energia eolikoaren produkzio eta banaketaren etorkizuneko egoera aztertzeke? Zer egoeratan aurkitzen da energia eolikoaren garapena Nafarroan Nazioko Protokolo Elektrikoan ezarritakoarekin alderatuz?

Iruñea, 1997ko urriaren 3a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako Parke Eolikoaren egoerari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Parke Eolikoaren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Natur baliabideen erabilpenari buruzko ikerketa eta garapenean azkenaldi honetan izan diren aurrerapenek energia-iturri garrantzitsuak izan daitezkeen sistemen artean kokatu dute haizea.

Gure Komunitatean zegoen errealitate honek otsailaren 26ko 125/1996 Foru Dekretua onestera bultzatu zuen Nafarroako Gobernua. Dekretu horrek parke eolikoaren ezarpena arautzen zuen;

hain zuzen, horrelaxe deitzen zaie haizearen bidez energia lortzeko instalazioei.

Ondoren, urte bereko abenduan, parke eoliko berriak ezartzeko plan eta proiektuak onestea eten egin zuen Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu baten bidez ere.

Eten honek aurretik Nafarroako Gobernuari aurkezturiko plan eta proiektuak ez zituen ukitu, eta horien aldaketa, berrikuspina eta onespena jadanik aipaturiko 125/1996 Foru Dekretuaren arabera ebazten dihardute.

Nafarroako Parke Eolikoaren gaur egungo egoerari buruz honako informazio hau eskatzen da:

1.- Gaur egun baimenduta eta funtzionamendu osoan dauden parke eolikoaren zerrenda, honako hauen aipamen zehatza eginez: enpresa sustatzailea, eskaera-data, parkearen izena, hori dagoen udalerrria edo udalerrriak, instalaturiko aerosorgailuen gutxi gorabeherako kopurua, megawatt-etan neurturiko potentzia osoa eta obren hasiera- eta amaiera-data.

2.- Gaur egun baimenduta eta obretan dauden parke eolikoaren zerrenda, honako hauen aipamen zehatza eginez: enpresa sustatzailea, eskaera-data, parkearen izena, zer udalerritan instalatzen ari diren, instalatu beharreko aerosorgailuen gutxi gorabeherako kopurua, megawatt-etan neurturiko

potentzia osoa eta obren hasiera-data eta aurreikusiriko bukaera-data.

3.- Gaur egun proposaturik eta baimentzeke dauden parke eolikoaren zerrenda, honako hauen aipamen zehatza eginez: enpresa sustatzailea, eskaera-data, parkearen izena, hori ezarri nahi den udalerrria edo udalerrriak, instalatu beharreko aerosorgailuen gutxi gorabeherako kopurua, megawatt-etan neurturiko potentzia osoa eta obren hasiera eta amaierarako eskaturiko edo aurreikusiriko datak.

4.- Parke eolikoak ezartzeko plan eta proiektu berrien onestea eteten duen Foru Dekretua inda-

rrean sartu zenetik aurkezturiko eskaeren zerrenda, honako hauen aipamen zehatza eginez: enpresa sustatzailea, eskaeraren aurkezpen-data, parkearen izena, hori ezarri nahi den udalerrria edo udalerrriak, instalatu beharreko aerosorgailuen gutxi gorabeherako kopurua, megawatt-etan neurturiko potentzia osoa, obrak hasi eta bukatzeko eskaturiko edo aurreikusiriko datak eta eskaera bakoitza zer administrazio-egoeratan aurkitzen den.

Iruñea, 1997ko urriaren 3a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Emakumeari Arreta egiteko Planari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Emakumeari Arreta egiteko Planari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Prentsan ikusi ahal izan dugunez, aldaketak izango omen dira Nafarroako emakumeek gineko-

logoa aukeratzekoan. Badirudi hemendik aurrera espezialitate horretako gure medikua aukeratu ahal izango dugula.

Parlamentari honek zehazatasun gehiago jakin nahi du Emakumeari Arreta egiteko Planari buruz.

– Noiz aukeratu ahal izango da ginekologoa?

– Nola izango da emakumeek ginekologoa aukeratzeko prozesua?

– Anbulategietan aurreikus daitezkeen pertsonal mugimenduak.

– Zer anbulategitan izango da ginekologia zerbitzua? Zerrenda.

– Solchagakoari eusten ez bazaio, Departamentuaren arrazoiak aldaketa egiteko.

Iruñean, 1997ko urriaren 3a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Beste ikasketak (lizentziaturak, doktoretza tesiak) egiteko liberatuen kopuruari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak beste ikasketak (lizentziaturak, doktoretza tesiak) egiteko liberatuen kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamendua-ren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

Parlamentari honen galderari erantzunez (Erregistroko 1.462 zenbakia), Departamentuak planteatzen du zein izanen diren beste ikasketak egiteko liberatuko diren irakasleak. Guztirakoak

eta modalitateak agertzen dira.

Gai honi buruz ondokoa jakin nahi genuke:

A) 1996-97 ikasturtea:

– Zein Lizentziaturatan ikasteko liberatu diren. Liberatuen izenak eta irakaslearen ikastetxea.

– Doktoretza-tesia: liberazioaren erabiltzailearen izena, tesiaren helburua eta irakaslearen ikastetxea.

– Espezializazio ikasketak: zein diren, non burutuko diren, liberatuen izenak eta zein ikastetxetatik heldu diren.

– Hezkuntza-ikerketako proiektua: proiektuaren izenburua, non ikertzen ari den, liberatuen izenak eta zein ikastetxetatik heldu diren.

B) 1997-98 ikasturtea.

A puntuaren berdina.

C) Liberatuak izendatzeko jarraitzen den prozesua, azalpen orokorra eta eskatzaileen balorazioak emanez. Haiek liberatzeko izan diren arrazoiak.

Iruñean, 1997ko urriaren 6an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

1997-98 ikasturtean zenbat pertsona dauden liberatuta eta zein kontzeptupean liberatu diren itauntzeko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak 1997-98 ikasturtean zenbat pertsona dauden liberatuta eta zein kontzeptupean liberatu direnei itauntzeko galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal Eusko Alkartasuna-

AskotarikoParlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamendua-ren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

Foru Parlamentari honek egindako galdera baten erantzuna sartu da Parlamentuan, 1.741 erregistroko zenbakiarekin; ikusirik behar bezala erantzun gabe dagoela, berriz ere planteatuko dut. Berezi 3. atala presaz erantzun dadila eskatzen da.

Beraz, jakin nahi da 1997-98 ikasturtean zenbat pertsona dauden liberatuta eta zein kontzeptupean liberatu diren.

Iruñean, 1997ko urriaren 6an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Toki entitate eta kirol elkarteentzako kirol instalazioetan inbertsioak egiteko dirulaguntzen deialdiari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari jaunak toki entitate eta kirol elkarteentzako kirol instalazioetan inbertsioak egiteko dirulaguntzen deialdiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamendua-ren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

Otsailaren 18ko 25/97 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako Toki Entitate eta Kirol Elkarteentzako kirol instalazioetan inbertsioak egiteko dirulaguntzen deialdiaren oinarriak onetsi ziren.

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko Zuzendari Nagusiaren ekainaren 31ko 455/97

Ebazpenaren bidez, dirulaguntzen kontzesioa behin-behinekoz onetsi zen.

Parlamentari honek ondoko datuak ezagutu nahi ditu:

- Aurkeztu diren eskaeren kopuru osoa eta haien zenbatekoak.

- Eskaeren azalpen banakaturak, zehaztuz eskaeren duen entitatearen izena eta laguntza eskatzen den proiektu zenbatetsia.

- 10 milioi pezeta baino gehiagoko lanei esleitu zaizkien laguntzak, laguntza hori eskatu duten entitatea zehaztuz.

- 10 milioi pezeta baino gutxiagoko lanei esleitu zaizkien laguntzak, laguntza hori eskatzen duten entitatea zehaztuz.

- Dirulaguntzarik esleitu al zaio dokumentazioan obra burutzeko proiekturik ez zuen 10 milioi pezeta baino gehiagoko obraren bati?

- Baiezkoan, zeini esleitu zaion, zertarako eta horren justifikazioa.

Iruñean, 1997ko urriaren 6an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

San Adriango Osasun Zentroari atxiki zaion Andosillako Medikuntza Kontsultategiari buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak San Adriango Osasun Zentroari atxiki zaion Andosillako Medikuntza Kontsultategiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendariz, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du:

San Adriango Osasun Zentroari atxiki zaion Andosillako Medikuntza Kontsultategiak Oinarrizko Osasun Laguntzaren arloan ez die eskaintzen aurretiko zita zerbitzua Andosillako biztanle guztiei (herriak 2.511 biztanle ditu). Horrek dakarren kaltea zera da: zain egon behar izatea, batzuetan

hainbat orduz ere, familia-medikuak tratatu ahal izateko. Hori oztopo bat da lana edo bestelako eginkizunak direla-eta medikuaren laguntza izateko denborarik ez duten pertsonentzat.

Daukagun informazioaren arabera, San Adriango Osasun Zentroari atxikitako beste hainbat kontsultategitan (adibidez, Azagrakoan) eta Osasun Zentroan bertan zerbitzu hori behar bezala ematen ari dira.

Nafarroako Osasun Zerbitzuak aurretiko zita zerbitzu hau ez ematea Andosillako biztanleentzat kalte bat dela kontsideratuz, zera jakin nahi da:

- Zerk eragozten du Andosillako biztanleei zerbitzu hori ematea?

- Zer neurri hartzea aurreikusten du Nafarroako Osasun Zerbitzuak Andosillako kontsultategian aurretiko zita zerbitzua emateko?

Iruñea, 1997ko urriaren 3a

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

Radio Televisión Española-k Nafarroan duen lurralde-zentroaren programazioari buruzko galdera

CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 7an egindako bilkuran, Carlos Cristobal García Foru Parlamentari jaunak Radio Televisión Española-k Nafarroan duen lurralde-zentroaren programazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak hitzezko erantzuna eskatu du, Herrilan eta Azpiegiturak Batzordeari emanen zaiona.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Carlos Cristóbal García, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Parlamentuko 1996ko azaroaren 28ko Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Radio Televisión Española-k Nafarroan duen lurralde-zentroaren programazioari buruzko erabaki bat.

Bertan, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu zuen Radio Televisión Española-ko zuzendaritzarekin hitz egiten has zedin, "lurralde-deskonexioei buruzko hitzarmen edo ituna lortzeko Nafarroako Foru Komunitateak komunikabide publikoetan bere programazioa eduki ahal dezan nahikoa iraupenarekin".

Mozioa onetsi aurreko eztabaidan hainbat punturi heldu zitzaion, komunikabide publikoei eta programazio bereki gisa RTVE-ren lurralde deskonexioez bestelako aukera bideragarriei zegozkienak.

Hori guztia dela-eta, zera jakin nahi da:

- RTVNa-ren lurralde-programazioari buruzko aipatu erabakia betetzeko Nafarroako Gobernuak eginiko gestioak.

- Aferaren egoera eta Nafarroarako emititzen duten komunikabideetan programazio berekia lortzeko Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituen alternatibak.

Iruñea, 1997ko urriaren 6a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristóbal García

Aurrekontu berrietan Nafarroako Unibertsitate Publikoa behar dituen bitartekoez hornitzeko aurreikusitako neurriei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Aurrekontu berrietan Nafarroako Unibertsitate Publikoa behar dituen bitartekoez hornitzeko aurreikusitako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 4a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Aurrekontu berrietan Nafarroako Unibertsitate Publikoa behar dituen bitartekoez hornitzeko aurreikusitako neurriei buruz Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak eginiko galderari erantzunez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak zera agertzen du:

1.- Beharrezkoak eta egokiak diren neurri guztiak hartuko dira. Nafarroako Gobernuak 1998rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua osatu behar duten irizpide eta ildo nagusiak ezarri ondoren, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egoki diren kontusail ekonomikoak proposatuko ditu, Langileria, Ohiko Transferentziak, Inbertsioak eta Kapital Transferentziak kapituluei dagokienez, NUPeko eta Unibertsitateko Irakaskuntza eta Ikerketa Zerbitzuko organo eskudunek elkarlanean egingo duten beharizan-azterketaren arabera.

Nafarroako Gobernuak onetsiriko aipatu Aurrekontu Proiektua Parlamentura igorriko da, horrek onets dezan edo gai honi buruz Gobernuak hasieran eginiko aurreikuspenak murriztu edo haunditu ditzan.

1998rako Aurrekontu Legean egoki diren zenbateko ekonomikoak ezarri ondoren, NUPeko Gobernu Batzordeak Unibertsitatearen Urteanitzeko Programazioaren Proiektua eta 1998rako NUPeko Aurrekontuaren Proiektua Gizarte Kontseiluari aurkeztuko dizkio, honek onets ditzan.

2.- Nafarroako Unibertsitate Publikoan kontuhartzaile bat sortzeari dagokionez, 1983ko Unibertsitatearen Erreformarako Legearen (U.E.L.) arabera, bere gastu eta inbertsioen barne-kontrola ziurtatzea Unibertsitateari berari dagokiola gogo-

ratu behar da, bere kontuak aurrekontu-, ondare-eta analisi-kontabilitatearen printzipioen arabera antolatuz.

Gai honi dagokionez, NUPi dagozkion ekime- nek betidanik begirunerik haundiena eragin izan diote Kontseilari honi. NUPek erabaki behar du, bere gobernu organoen bitartez, ea barne-kontuhartzaitza, administrazio-unitate gisa, sortuko duen, eta, hala bada, noiz sortuko duen.

Puntu honetan, zera esan beharra dago: bai U.E.L.k bai Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuek egoki diren legezketasun eta eragin-kortzsun ekonomikoari buruzko kontrolak arautuko dituztela, dela barneko aldetik, Gobernu Batzordearen bitartez, dela kanpoko aldetik, Gizarte Kontseiluaren bidez.

Nolanahi ere, gastu eta ordainketen ordenazioa eta dirusarrera-bilketa Nafarroako Foru Komunitateko legedian aurkitzen den aurrekontu-betetzeari buruzko araudiak xedatutakoari egokitu beharko zaizkio, azken buruan.

3.- Unibertsitate-autonomiako egungo egoera honetan ez da onargarria Gobernuaren kontuhartzaile ordezkari bat izendatzea NUPerako. Bestalde, figura hori sortzearen ondorioz, NUPeko barne-kontuhartzaitzaren beraren eginkizunak bikoiztu egingo lirake.

Bestalde, kontuan eduki behar da Foru Komunitateak badituela baliabideen esleipena eta erabilera zuzena dela zaintzeko tresna egokiak. Bate-tik, esleipen ekonomiko orokorra Nafarroako Parlamentuak finkatzen du, eta langileria plantila onestea (I. Kap.) Nafarroako Gobernuari dagokio; bestetik, Gizarte Kontseiluari dagokio NUPeko Urteanitzeko Plangintza hala nola bere urteko aurrekontua eta horren balizko aldaketak onestea.

Aurrekontu-betetzearen jarraipenari dagokio- nez, Gizarte Kontseiluaren Ekonomi Batzordeak Unibertsitatearen jarduketa ekonomikoa eta finant- zakoa ikuskatzeko eta Nafarroako Gobernuaren adostasunarekin aurrekontuetako kapitulu- en artean egoki diren transferentziak baimentzeko zere- gina dauka.

4.- Eginiko azken galderari dagokionez, esaldi bakoitza bere testuinguruan interpretatu behar dela gogorarazi behar da, eta testuingurua "per- tsonekiko begirunerik handienekoa" izan zen, afe-

rak "ezer eragitekotan, tristura eragiten zuela" zehatzuz jarraian, Parlamentu honetako iazko maiatzaren 28ko Bilkura Egunkarian irakur daitekeen bezala. Eta, ikuspegi positibo batetik begiratu, NUPen sortzen zen edo sortzen den edozein aurrekontu-superabiti ahalik eta gizarte-errendimendurik onena ateratzen saiatu behar delako nire iritzia adierazi nahi zuen espresio honek; alegia, Unibertsitatearen zein beste edozein Administrazio Publikoren kudeaketa arruntean sor litezkeen soberakinak Unibertsitateko Komunitatearen eta Foru Komunitate osoaren interes orokorrekoak diren lehentasunezko helburuetara bideratu behar direlako iritzia.

Aipaturiko batzordean izan nuen partehartzea jasotzen duen testuak frogatzen du Nafarroako Unibertsitate Publikoak 1995eko bere aurrekontua betetzean izan zuen superabita ia osotasunean bat datorrela Parlamentuak (honen barruan, baita IUko taldeak ere) onetsiriko emendakinaren balioarekin. Eztabaidatzeko eta, egoki balitz, onesteko Gobernuak igorri zuen aurrekontu-zirriborroan Unibertsitate horretarako esleitzen zen kopurua handitzeko zen emendakin hori.

Beraz, aipaturiko superabita gertatu ondoren, Gobernuak baloraturiko beharrianetatik gora aurrekontuaren esleipena haundituz hura eragin zuten taldeetako batek azalpenak eskatzea irigarria zen. Tristeia ere bazen, jarrera horren ondorioz ez baitzitzaien gizarte-errentagarritasunik atera aipaturiko superabitari, eta administrazio eraginkor baten antolakuntza ere ez zen erraztu.

Bestalde, lehen aipaturiko agerraldian, garai hartan oposizioko talderik haundienaren bozermale gisa jardunez, antzeko egoera bat iragarri zuen 1996ko ekitaldirako, tamalez gertatu egin dena.

Nolanahi ere, gauza jakina da Kontseilari honi NUPeko Gobernu Batzordeak begirunerik sakonena eta balioesterik haundiena eragiten dizkiola.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 27a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuaren osasun-datuen eguneratze zerbitzuaren kanpo esleipenerako espedienteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuaren osasun-datuen eguneratze zerbitzuaren kanpo esleipenerako espedienteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 30eko 49. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 4a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuaren osasun-datuen eguneratze-zerbitzuaren esleipenari buruz Ion Iñaki Erro Armendariz, "Izquierda Unida-Ezker Batua de

Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak egindako galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Osasun Kontseilariak:

1996ko azaroaren 19 eta 28an eta 1997ko urtarrilaren 15ean hainbat akordio sinatu zuten Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzak eta Oinarrizko Osasun Barrutietako Zuzendariak. Akordio horietan, Antolaketa Zerbitzuak 1997an zehar burutu beharreko eginkizun batzuk ezarri ziren, jarraian laburbildurik aipatzen direnak:

1.- Osasun zentroetako datu baseen eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasunari buruzko datu basearen artean datuak trukatzeko programa-diseinu berria sortzea eta berau 1997ko lehen hiruhilabetekoan martxan jartzea.

Datuak trukatzeko programa aldatu beharriaren zergatia hauxe da: banakako osasun txartelaren aplikazio zaharraren ordean osasunari buruzko datu basea izeneko aplikazio berria jarri izana.

Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuari atxikiriko langileak arduratzen dira osoki eginkizun horretaz.

Osasun zentroyen eta osasunari buruzko datu base zentralaren arteko datu-trukerako prozesuak honela gauzatzen dira: Osasun zentroan jaso eta sartzen den informazioa diskette bidez emanez, Banakako Osasun Txartelaren Atalean burutzen den erregistro bakoitzaren banakako baliozkotze-prozesuaren bitartez eta baliozkoturiko datuak osasun zentroan har ditzaten itzuliz.

Banakako Osasun Txartelaren Atalak burutzen duen baliozkotze-prozesua osasun publikoaren erabiltzaile bakoitzaren datu-mota bakoitza (pertsoneak, helbideari dagozkionak, mediku-esleipena...) egiaztatzean datza, era egoki batean sailkatua izan dadin.

2.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren osasunari buruzko datu basean dagoen informazioaz baliatuz, osasun zentroetako datu baseen populazio-informazioa eguneratzea, GICES aplikazioa ezarria daukaten datu base periferiko guztiekin gurutzatze masibo bat eginez (57 osasun zentro edo kontsultategi, guztira 700.000 inguruko erregistro-kopurua kalkulatur).

Aipaturiko akordioetako 2. puntua praktikara eraman ahal izateko, bi baseen arteko gurutzatze eta elkartruke masiboko prozeduratik eratorritako hainbat aparteko eginkizun egitea beharrezkoa da: Antolaketa Zerbitzuari atxikiriko Banakako Osasun Txartelaren Atalak ohizkanpoko den

110.000 inguru erregistroren egiaztatzea eta baliozkotzea bere gain hartu behar ditu, ezarrita dituen eginkizun arruntak burutzeaz gain (horietako bat banakako osasun-txartelak berritzea eta jaulkitzea da: zehazki, 1997an 300.000 inguru bidalketatan gauzatuko da hori).

Banakako Osasun Txartelaren Atalari horrek ekartzen dion lan-zama gehigarriak eta datuen gurutzatze eta elkartrukatzea abenduaren 31rako amaitu beharrek, Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzak oinarrizko osasun barrutietako zuzendariekin hartutako konpromisoarekin batera (berau 1997ko kontratu-egitarauetan agertzen da), beharrezko bihurtzen dute presazko kanpo kontratazioa egitea aipaturiko zerbitzurako.

Proposatuturiko helburuak ahalbidetu egingo du osasun zentro bakoitzak oinarrizko barrutian osasun-laguntza eskatzen duten erabiltzaile guztiak behar bezala sailkatuta eta zenbatuta edukitzea, oinarrizko osasun laguntzan ezarritako kontratu-egitarauarekin gero eta behar haundiagoa baitago populazio-datuak ezagutzeko, bai oinarrizko barrutikoak bertakoak bai beste barrutietara atxikirik egonik, bestelako arrazoiak direla-eta osasun-laguntza hor bertan eskatzen duten erabiltzaileek.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 26a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Noingo Osasun Etxeko pediatri azterketa zerbitzuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Noingo Osasun Etxeko pediatri azterketa zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 30ko 49. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 4a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Noingo Osasun Etxeko Pediatri Azterketa Zerbitzuaren geldialdiari buruz Ion Iñaki Erro Armendáriz, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Osasun Kontseilariak:

Nafarroan aplikaturiko ume osasuntsuaren programak hamasei osasun-azterketa ezartzen ditu jaiotza eta sei urteko adina bitartean.

Noingo osasun etxean, osasun-laguntzan zegoen pilaketa zela-eta, gehiegizko lan-zama jasaten ari zen pediatrik eskaturik, hamasei azterketetako bat (3 urteetako) bertan behera utzi zen aldi baterako.

Gogoratu beharra dago Noingo oinarritzko osasun barrutiak duen banakako osasun txartelkopuruak ez duela arauak ezarritakoa gainditzen; hala ere, barruti horri irailetik aurrera lanaldi partzialeko pediatria bat esleitzea erabaki da dagoneko.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 26a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Gizarteak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkulariei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak gizarteak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkulariei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 4a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Lehendakaritza eta Barne kontseilariaren erantzuna

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak gizarteak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkuemaileei buruz egindako galderaren

inguruan, Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Zenbat eta zeintzuk dira Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren organo aholkuemaileak, eskumena duen gai desberdinetan? Zer Departamenturen menpe daude eta nolako gaietan aritzen dira?

A) Nafarroako Babes Zibileko Batzordea.

B) Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Prestakuntzarako Batzordea.

2. Noiz eta nola (Legea, Dekretuak, Erabakia...) sortu da aipatutako organo bakoitza?

A) Uztailaren 4ko 131/1994 Foru Dekretua; urtarrilaren 15eko 12/1996 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.

3. Zenbat bilera egin dituzte aipatutako organo aholkuemaileek azken hiru urteetako bakoitzean?

A) 1994	1
1995	0
1996	1
B) 1994	4
1995	0
1996	3

4. Zenbat dira organo aholkuemaile hauetan ordezkaturiko erakunde publiko nahiz pribatuak?

A) Nafarroako Toki Administrazioaren 4 ordezkari.

B) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkari bat.

Nafarroako Administrazio Publikoetan ordezkariak dituzten sindikatu guztietako ordezkari bat.

5. Zein izan da azken bi aurrekontu urtealdietan kontzeptu guztiak barne (langilegoa, funtzionamendu gastuak, ekitaldiak, hitzarmenak, dirulaguntzak eta abar) organo aholkuemaile bakoitzak izandako kostua?

Ez dago diru-zenbatekorik organo hauei edo partaideei bereziki atxikirik.

6. Komenigarritzat edo beharrezkotzat jotzen al du Nafarroako Gobernuak eskumena duen beste gai batzuetan organo aholkuemaile berriak izatea erabaki publikoak hartzean giza sektoreen parte hartzea handitzeko?

Ez.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren erantzuna

José Javier Sánchez Turrilas Foru Parlamentari jaunak gizarreak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkuemaileei buruz idatziz erantzun diezaitoten egindako galderaren inguruan, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak ondokoa adierazten du:

Bi dira Nafarroako Gobernuak Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren menpean gizarreak eta herritarrek parte hartzeko dauden organo aholkuemaileak: Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Soziala eta Kontratazio Administratiborako Batzar Aholkuemaileak.

NAFARROAKO KONTSEILU EKONOMIKO ETA SOZIALA

Zein Departamenturen menpe: Ekonomi eta Ogasun Departamentua.

Zein gaitan aritzen den: sozialak, ekonomikoak, lan arlokoak eta Nafarroako aurrekontu orokorrak.

Nola eta noiz sortu zen:

– Apirilaren 4ko 8/1995 Foru Legea, Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Soziala arautzen duena.

– Hori baino lehen, Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta soziala sortu zuen apirilaren 20ko 105/1987 Foru Dekretuaren bidez arautzen zen.

Azken hiru urte hauetan egindako bilkurak:

1995:

– Otsailaren 17an.

– Azaroaren 7an.

– Azaroaren 16an.

1996:

– Otsailaren 2an.

– Martxoaren 15ean.

– Azaroaren 5ean.

– Abenduaren 10ean.

1997:

– Apirilaren 7an.

Aipatutako kontseilu aholkuemaileetan ordezkariak dituzten antolakundeak:

Apirilaren 4ko 8/1995 Foru Legearen ondoren:

Administrazioaren ordezkariak:

– Foru Administrazioaren 6 ordezkari.

– Toki Administrazioaren ordezkari bat.

Sindikatuaren ordezkariak:

– UGTko (Unión General de Trabajadores) 3.

– CCOOeko (Langileen Komisioak) 2.

– ELAko (Eusko Langileen Alkartasuna) 1.

– LABeko (Langile Abertzaleen Batzordeak) 1.

Enpresarien elkarteetako ordezkariak:

– CENeko (Confederación de Empresarios de Navarra) 7.

Ekonomia Sozialeko ordezkariak:

– ANELeko (Asociación Navarra de Empresas Laborales) 1.

– UCANeko (Unión de Cooperativas Agrarias de Navarra) 1.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen ordezkariak:

– Irache kontsumitzaileen elkarteko 1.

Nekazaritza eta Abeltzaintzaren sektoreko ordezkariak.

– UAGNko (Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra) 1.

– EHNE-Nko (Euskal Herriko Nekazarien Elkarte Nafarroan) 1.

Erakunde Ekologistetako ordezkariak:

– Erakunde Ekologisten ordezkari bat.

Kontzeptu horien guztiengatik azken aurrekontu-ekitaldietan izandako kostua:

1995, 1996 eta 1997. urteetan, Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak ez du batere gasturik izan ez langileengatik, ez funtzionamenduagatik, ez jarduerengatik ezta beste ezerengatik ere.

Hori guztia gora-behera, Lan Zuzendaritza Nagusian, ez ordea Kontseilu Ekonomiko eta Soziala kokatuta dagoen Departamentuan, azken hiru urte hauetan ondoko aurrekontu-kontusailak izan dira:

1995: "Organo mistoetan parte hartzeagatik sindikatu eta enpresarien elkarte garrantzitsuenei emandako ordainsariak". Zenbatekoa: 33.920.000 pta. Diru hori proportzioan banatu zen erakunde horiek Kontseilu Ekonomiko eta Sozialen zeuzkaten ordezkarien arabera.

1996: "Langileen sindikatuei, ekonomia sozialeko elkarteei eta enpresarien elkarteei Kontseilu Ekonomiko eta Sozialen parte hartzeagatik emandako ordainsariak". Zenbatekoa: 38.920.000 pta. Diru hori proportzioan banatu zen erakunde horiek Kontseilu Ekonomiko eta Sozialen zeuzkaten ordezkarien arabera.

1997: "Langileen sindikatuei, ekonomia sozialeko elkarteei eta enpresarien elkarteei Kontseilu Ekonomiko eta Sozialen parte hartzeagatik emandako ordainsariak". Zenbatekoa: 38.920.000 pta. (Ordaindu gabe dago; ordainketa proportzioan banatuko da erakunde horiek Kontseilu Ekonomiko eta Sozialen dauzkaten ordezkarien arabera).

KONTRATAZIO ADMINISTRATIBORAKO BATZAR AHOLKUEMAILEA

Zein gaitan aritzen den:

Administrazioak parte hartzen dituen kontratuekin lotura duten guztiak. Administrazioari laguntzen dio horrelakoetan.

Nola eta noiz sortu zen:

– Maiatzaren 4ko 590/1988 Foru Dekretua.

– Aldaketa: Abenduaren 18ko 590/1995 Foru Dekretua.

Azken hiru urte hauetan egindako bilkurak:

1994: 1

1995: 2

1996: 3

1997: 1

Aipatutako organo aholkuemaileetan ordezkariak dituzten antolakundeak:

– Nafarroako Gobernuko 8 ordezkari: Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria, Ondarearen Zerbitzuko zuzendaria, Kontuhartzailera atalburua, Laguntza Juridikoaren atalburua, Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Laguntzako zuzendariordea, Laguntzaile Juridiko bat, eta Hezkuntza eta Herrilan Departamentuetako ordezkari bana.

– ANECOPEko ordezkari bat, eraikuntzaren alorreko maila txiki eta ertaineko enpresen ordezkari gisa.

– Kontratisten Ganbarako ordezkari bat, eraikuntzaren alorreko enpresa handien ordezkari.

Kontzeptu horien guztiengatik azken aurrekontu-ekitaldietan izandako kostua:

1.000.000 pta.ko kostua ohiko gastuaren kargura, Batzarraren argitalpenaren eta haren zirkularren funtzionamendu normala bermatzeko.

Langileei dagokienez, Batzarraren idazkaritzari atxikiriko goi mailako tituludun baten kostuaren % 50 aipatu behar da, izan ere, bai Batzarraren eginkizunetan, bai harekin lotura zuzenik ez duten espediente juridikoen ebazpenetan aritzen delako.

Era berean, D mailako plantilako administrari baten lanpostuaren % 50.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 26an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi.

Toki Administrazioko kontseilariaren erantzuna

José Javier Sánchez Turrilas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak gizarteak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkuemaileei buruz egin-

dako galderaren inguruan, Toki Administrazioiko Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Zenbat eta zeintzuk dira Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren organo aholkuemaileak, eskumena duen gai desberdinetan? Zer Departamenturen menpe daude eta nolako gaietan aritzen dira?

A) Toki Araubidearen Foru Batzordea.

B) Lurralde Mugapenaren Batzordea.

2. Noiz eta nola (Legea, Dekretuak, Erabakia...) sortu da aipatutako organo bakoitza?

A) Urriaren 18ko 277/1990 Foru Dekretua, urriaren 30eko 492/1995 Foru Dekretuaren bidez aldatua.

B) Urriaren 18ko 278/1990 Foru Dekretua.

3. Zenbat bilera egin dituzte aipatutako organo aholkulariek azken hiru urteetako bakoitzean?

A) 1994..... 10

1995..... 7

1996..... 12

B) 1994..... 1

1995..... 2

1996..... 2

4. Zenbat dira organo aholkulari hauetan ordezkaturiko erakunde publiko nahiz pribatuak?

A) Nafarroako Toki Administrazioaren 7 ordezkari.

B) Nafarroako Toki Administrazioaren 7 ordezkari.

Erakunde publiko eta pribatuetako 5 ordezkari, Administrazio Publikoan, geografian eta hirigintzan adituak direnak.

5. Zein izan da azken bi aurrekontu urtealdietan kontzeptu guztiak barne (langilegoa, funtzionamendu gastuak, ekitaldiak, hitzarmenak, dirulaguntzak eta abar) organo aholkulari bakoitzak izandako kostua?

Ez dago diru-zenbatekorik organo hauei edo partaideei bereziki atxikirik.

6. Komenigarritzat edo beharrezkotzat jotzen al du Nafarroako Gobernuak eskumena duen beste gai batzuetan organo aholkulari berriak izatea erabaki publikoak hartzean giza sektoreen parte hartzea handitzeko?

Ez.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24an.

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

José Javier Sánchez Turrilas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak gizarteak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkuemaileei buruz idatziz erantzun diezaioten egindako galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Zenbat eta zeintzuk dira Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren organo aholkuemaileak, eskumena duen gai desberdinetan? Zer Departamenturen menpe daude eta nolako gaietan aritzen dira?

2. Noiz eta nola (Legea, Dekretuak, Erabakia...) sortu da aipatutako organo bakoitza?

3. Zenbat bilera egin dituzte aipatutako organo aholkulariek azken hiru urteetako bakoitzean?

4. Zenbat dira organo aholkulari hauetan ordezkaturiko erakunde publiko nahiz pribatuak?

5. Zein izan da azken bi aurrekontu urtealdietan kontzeptu guztiak barne (langilegoa, funtzionamendu gastuak, ekitaldiak, hitzarmenak, dirulaguntzak eta abar) organo aholkulari bakoitzak izandako kostua?

6. Komenigarritzat edo beharrezkotzat jotzen al du Nafarroako Gobernuak eskumena duen beste gai batzuetan organo aholkulari berriak izatea erabaki publikoak hartzean giza sektoreen parte hartzea handitzeko?

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo

ORGANOAK	SORRERA	BILKURAK (azken 3 urte hauetan)	ORDEZKATUTAKO ANTOLAKUNDEEN KOPURUA	DIRU- KOSTUA
Lurraldearen Antolamenduko Batzordea	Ekainaren 4ko 10/94 Foru Legearen 289. artikulua.	1994: 9 1995: 8 1996: 9	9	
Eskualdeko Hirigintza Arauen Jarripenerako Batzordea (Iruñerria)	Maiatzaren 13ko 207/96 Foru Dekretua.		30	
Nafarroako Inguru- giroaren Batzordea	Otsailaren 17ko 1/93 Foru Legea.	1994: 5 1995: 8 1996: 8	17	1995: 550.500 pta. 1996: 598.296 pta.
Ehizako Batzorde Aholkuemailea	Maiatzaren 3ko 144/93 Foru Dekretua.	1995: 1 1996: 2	14	1996: 136.500 pta.
Arrantzako Batzorde Aholkuemailea	Maiatzaren 3ko 143/93 Foru Dekretua.	1996: 2	13	1996: 214.500 pta.
Nafarroako Oihan- gintzarako Kontseilu Aholkuemailea	Otsailaren 12ko 107/96 Foru Dekretua.	1996: 2	14	1996: 169.000 pta.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna

José Javier Sánchez Turrilas Foru Parlamentari jaunak gizarteak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkuemaileei buruz egindako galderaren inguruan, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. "Nafarroako Euskararen Kontseilua". Hizkuntzaren normalizazioaren arloan aritzen da. Funtzionamenduari dagokionez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpean dago.

"Kulturaren Nafarroako Kontseilua": kulturaren alorrean dihardu. Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpean dago.

"Hezkuntzako Batzorde Nagusia": hezkuntzaren alorretan dihardu. Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpean dago.

"Lanbide Heziketako Kontseilu Nagusia" prestakuntzarako eskaintza arautuak nahiz arautugabeak Nafarroan planifikatzen, koordinatzen eta orientatzen dihardu. Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpean dago.

"Itun eta Dirulaguntzen Batzordea": fondo publikoek mantendutako gizarte-ekimenezko ikastetxeekiko itun eta dirulaguntzen alorrean dihardu. Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpean dago.

"Beken Batzordea": ikasleentzako laguntzen arloan dihardu eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpean dago.

"Elebitasunaren Batzordea": elebitasunaren alorreko gaietan dihardu. Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpean dago.

"Irakasleen Prestakuntzarako Nafarroako Kontseilua". Kontseilu honen helbura bere sorrerako Dekretuaren 21. artikuluan biltzen da. Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpean dago.

2. Lehenbizikoa martxoaren 11ko 135/1996 Foru Dekretuaren bidez sortu zen. Abenduaren 24ko 689/1996 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.

Bigarrena azaroaren 21eko 241/1984 Foru Dekretuaren bidez sortu zen.

Hirugarrena Nafarroako Gorteen Legearen bidez sortu zen. Gorte horien 1828 eta 1829 urteetan egin ziren Iruñean. Batzorde hori antolatzen duen azken araua 1991eko apirilaren 25eko 167/1991 Foru Dekretua da.

Laugarrena urtarrilaren 31ko 44/91 Foru Dekretuaren bitartez sortu zen.

Bosgarrena abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretuaren 23.3 artikuluan biltzen da.

Seigarrena irailaren 26ko 211/84 Foru Dekretuaren bidez sortu zen.

Zazpigarrena martxoaren 21eko 102/91 Foru Dekretuaren bidez sortu zen.

Zortzigarrena ekainaren 17ko 245/1996 Foru Dekretuaren bidez sortu zen-

3. Nafarroako Euskararen Batzordearen hasierako bilkura 1997ko ekainaren 11n egin zen.

Kulturaren Nafarroako Kontseiluari dagokionez, ondokoak dira egindako bilkurak:

1994 urtea: Osoko bilkura	2
Batzordeak	40
1995 urtea: Osoko bilkura	3
Batzordeak	27
1996 urtea: Osoko bilkura	2
Batzordeak	40

Hezkuntzako Batzorde Nagusia:

Bilkurak: 1994	4
1995	2
1996	5

Lanbide Heziketako Kontseilu Nagusia:

Bilkurak: 1994	2
1995	1
1996	1

Itun eta Dirulaguntzen Batzordea:

Bilkurak: 1994	1
1995	1
1996	1

Beken Batzordea:

Bilkurak: 1994	2
1995	2
1996	2

Elebitasunaren Batzordea: batzorde hau ikasturtero bi aldiz bildu izan da.

Irakasleen Prestakuntzarako Nafarroako Batzordea: sortu berria denez, oraindik ez du bilkurarik batere egin.

4. 9 erakunde publiko zein pribatuk dituzte ordezkariek Nafarroako Euskararen Kontseiluan.

Kulturaren Nafarroako Kontseiluan batere ez dago, izan ere kide guztiak beren buruen ordezkarri gisa baitaude kontseilu horretan.

Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren osaketa apirilaren 25eko 167/91 Foru Dekretuak ezarri zuen.

Lanbide Heziketako Kontseilu Nagusian Foru Administrazioak, Nafarroan ordezkaritza handiena

duen sindikatuek eta Nafarroako Enpresarien Elkarte nagusiek dituzte ordezkariek.

Itun eta Dirulaguntzen Batzordean ondokoek dute ordezkaritza: Hezkuntza Administrazioak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, gizarte-ekimenezko ikastetxeetako patronalen antolakundeak, gizarte-ekimenezko ikastetxeetan ordezkarri gehien dituzten sindikatuek eta gizarte-ekimenezko ikastetxeetako gurasoen antolakundeak.

Beken Batzordean ondokoek dute ordezkaritza: Hezkuntza Administrazioa, maila ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoek, bi unibertsitateetako ikasleek eta bi unibertsitateetako ordezkariek.

Elebitasunaren Batzordean Hezkuntza Administrazioa beste inor ez dago. Berdin gertatzen da Lanbide Heziketarako Nafarroako Kontseiluarekin.

5. Gaur arte, batere ez Nafarroako Euskararen Kontseiluan.

Kulturaren Nafarroako Kontseiluaren gastuak azken bi ekitaldietan hauek izan dira:

1995	1.205.580 pta.
1996	1.340.000 pta.

Gainerako organo aholkuemaileetan ez dago batere gasturik seinalatutako kontzeptuei dagokienean.

6. Uste dugu nahikoa dela ordezkaritza hori.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 19an.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros.

Osasun kontseilariaren erantzuna

José Javier Sánchez Turrillas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak gizarteak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkuemaileei buruz egindako galderaren inguruan, izenpetzen duen Osasun Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Zenbat eta zeintzuk dira Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren organo aholkuemaileak, eskumena duen gai desberdinetan? Zer Departamenturen menpe daude eta nolako gaietan aritzen dira?

Ondokoak dira Osasun Departamentuaren menpeko gizarteak eta herritarrek parte hartzeko

organo aholkuemaileak: Nafarroako Lan Segurtasunaren eta Osasunaren Kontseilua eta Nafarroako Osasun Kontseilua

2. Noiz eta nola (Legea, Dekretuak, Erabakia...) sortu da aipatutako organo bakoitza?

Nafarroako Lan eta Segurtasunaren Osasunaren Kontseilua Lan Osasunaren Nafarroako Institutuaren egitura organikoa aldatu zuen azaroaren 13ko 545/1995 Foru Dekretuaren (abendua 4ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala) bidez sortu zen.

Nafarroako Osasun Kontseilua Osasunari buruzko azaroaren 12ko 10/1990 Foru Legearen bitartez sortu zen.

3. Zenbat bilera egin dituzte aipatutako organo aholkulariek azken hiru urteetako bakoitzean?

Nafarroako Lan Segurtasunaren eta Osasunaren Kontseiluak bost bilera egin ditu: 1995-12-13, 1996-04-16, 1996-06-17, 1996-12-12 eta 1997-04-21ean.

Nafarroako Osasun Kontseiluak urtean bi bilerak egiten ditu.

4. Zenbat dira organo aholkulari hauetan ordezkaturiko erakunde publiko nahiz pribatuak?

Nafarroako Lan Segurtasunaren eta Osasunaren Kontseilua ondokoek osatzen dute:

– Foru Komunitatearen Administrazioa (5 kide)

– Erakunde sindikalak (5 ordezkari):

2 UGT.

1 CCOO.

1 ELA.

1 LAB.

– Enpresarioen elkarteak (CENeko 5 kide).

– Estatuko Administrazioa (kide bakarra, boturik gabea).

Nafarroako Osasun Kontseiluaren osaketa:

– Osasun Administrazioa (6 kide)

– Kontsumitzaileen Nafarroako Elkarteak (3 kide)

– Erakunde sindikalak (3 kide)

– Enpresarien elkarteak (3 kide)

– Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (3 kide)

– Osasun erakunde kolegiatuak (5 kide)

5. Zein izan da azken bi aurrekontu urtealdietan kontzeptu guztiak barne (langilegoa, funtzionamendu gastuak, ekitaldiak, hitzarmenak, dirulaguntzak eta abar) organo aholkulari bakoitzak izandako kostua?

guntzak eta abar) organo aholkulari bakoitzak izandako kostua?

Ez dietarik ez dirulaguntzarik ez dagoenez, kostua oso txikia da (dokumentazioa, deiak...). Nafarroako Lan Segurtasunaren eta Osasunaren Kontseiluaren gastuak Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaren gastu orokorretan sartzen dira, eta Nafarroako Osasun Kontseiluarenak Osasun Departamentuaren Zuzendaritza Nagusian sartzen dira.

6. Komenigarritzat edo beharrezkotzat jotzen al du Nafarroako Gobernuak eskumena duen beste gai batzuetan organo aholkulari berriak izatea erabaki publikoak hartzean giza sektoreen parte hartzea handitzeko?

Osasun Departamentuak ez du uste beharrezkoa denik bere eskumeneko beste inongo arlotan organo aholkulari berriak egotea.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 16an

Osasun Kontseilaria, Santiago Cervera Soto

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna

José Javier Sánchez Turrilas Foru Parlamentari jaunak gizarteak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkuemaileei buruz egindako galderaren inguruan, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

Galdera:

1. Zenbat eta zeintzuk dira Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren organo aholkuemaileak, eskumena duen gai desberdinetan? Zer Departamenturen menpe daude eta nolako gaietan aritzen dira?

2. Noiz eta nola (Legea, Dekretuak, Erabakia...) sortu da aipatutako organo bakoitza?

3. Zenbat bilera egin dituzte aipatutako organo aholkulariek azken hiru urteetako bakoitzean?

4. Zenbat dira organo aholkulari hauetan ordezkaturiko erakunde publiko nahiz pribatuak?

5. Zein izan da azken bi aurrekontu urtealdietan kontzeptu guztiak barne (langilegoa, funtzionamendu gastuak, ekitaldiak, hitzarmenak, dirulaguntzak eta abar) organo aholkulari bakoitzak izandako kostua?

6. Komenigarritzat edo beharrezkotzat jotzen al du Nafarroako Gobernuak eskumena duen

beste gai batzuetan organo aholkulari berriak izatea erabaki publikoak hartzean giza sektoreen parte hartzea handitzeko?

Erantzuna:

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak herritarrek parte hartzeko hiru organo ditu:

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua.
- Gazteriaren Kontseilua
- Nafarroako Emakumearen Kontseilua (aparteko txosten batean)
- Oztopo Fisiko eta Sentsorialen Batzordea.

NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEAREN KONTSEILUA

– Departamentuaren menpean dago, gizarte-ekintzako gaietan aholkularitza, informazioa eta proposamenak egiteko organo bezala.

– Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren Estatutuak ezarri zituen abenduaren 18ko 596/95 Foru Dekretuak (96-01-19) araututa dago.

– Urtean bi ohiko bilkura egiten ditu erregulariki.

– Ondokoek hartzen dute parte: Departamentuaren beraren organoek, Enpresarioen Konfederazioak, UGTk, CCOOk, Udal eta Kontzejuen Federazioak, Gizarte Langileen Elkargo Profesionalak, Minusbaliatuen Elkarteak, Hirugarren Adineko elkarte eta erakundeek eta haur, gazteri eta gizarteratzerako elkarteek.

– Funtzionamenduak ez du berezko kosturik, ez dieta ez kilometrajetik ez delako ordaintzen. Bulegoko materiala (papera, fotokopiak eta abar) Departamentuaren gastu orokorren kargura egiten dira.

– Ez dago kideen kopurua handitzeko asmorik.

OZTOPO FISIKO ETA SENTSORIALEN BATZORDEA

– Oztopo Fisiko eta Sentsorialeiei buruzko Foru Legearen ezarpenaren segimendua.

– Uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea, urriaren 6ko 250/1988 Foru Dekretua, urriaren 26ko 331/1996 Foru Dekretuak aldatua.

– Urtean bi aldiz biltzen da erregulariki.

– Departamentu batzuez gainera ondokoek hartzen dute parte: Nafarroako Minusbaliatu Fisikoen Elkarteak, O.N.C.E.k, Nafarroako Gorren Elkarteak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak.

– Ez berezko gasturik, ez dieta ez kilometrajetik.

– Ez dago haren osaketa aldatzeko asmorik.

GAZTERIAREN KONTSEILUA

– Gazteriaren gaietan, kontsulta, informazioa eta proposamenak egiten ditu.

– 110/1986 Foru Dekretuaz sortu zen. Abenduaren 17ko 300/1988 Foru Dekretuak aldatua.

– Zuzenbide Publikoko entitatea da, berezko nortasuna duena, eta ez dago Administrazioaren barrenean sartua.

NAFARROAKO EMAKUMEAREN KONTSEILUA

– Kontsulta, informazioa eta proposamenak ematen ditu berdintasunaren arloan eta emakumeak politikan, kulturen, ekonomian eta gizartean parta hartzearen inguruan.

– Irailaren 25eko 398/1995 Foru Dekretuak sortua. Haren osaketa eta funtzionamendua martxoaren 8ko 351/1996 Foru Aginduaren bidez arautu ziren.

– Lehenbiziko aldiz, 1996ko ekainaren 10eko hasierako bilkuran bildu zen. Gero, 1996ko irailaren 30ean eta azaroaren 18an, eta 1997ko martxoaren 3an.

– NEIko erroldan inskribatuta dauden Nafarroako Emakumeen Elkarteek parte hartzen dute bertan.

– Ondoko bidaiak ordaindu dira:

- 1996: 66.457 pezeta.
- 1997: 12.815 pezeta.

– Ez da beharrezkoa ikusten kontseilu hori zabaltzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko uztailaren 2an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna

José Javier Sánchez Turrilas Foru Parlamentari jaunak gizarteak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkuemaileei buruz egindako galderaren inguruan, izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Zenbat eta zeintzuk dira Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren organo ahol-

kuemaileak, eskumena duen gai desberdinetan? Zer Departamenturen menpe daude eta nolako gaietan aritzen dira?

A.-NAFARROAKO GARRAIOEN KONTSEILUA.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari atxikiriko organo aholkuemailea.

Ondokoak dira Nafarroako Garraioen Kontseiluaren eginkizunak:

A.a) Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak edo Nafarroako Gobernuak, beren eginkizunak betetzeko, garraioen sektorerako intereseko gaietan eskatzen dizkietenak aztertu eta haiei buruzko argibideak ematea.

A.b) Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari proposamen eta mozioak igortzea, garraioen antolamendu administratibo, tekniko eta ekonomikoari buruz.

B.- RTVEREN NAFARROAKO KONTSEILU ARAUEMAILEA.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari atxikiriko organo aholkuemailea.

Ondoko eginkizunak ditu RTVERen Nafarroako Kontseilu Arauemaileak:

B.a) Irrati eta telebistako zerbitzuak behar bezala deszentralizatzeko Nafarroak dituen beharrak eta ahalmena aztertzea, bereziki RCE Estatu-ko Sozietateari dagokionean, eta haiei buruzko aholkuak ematea.

B.b) Irratiaren eta Telebistaren Estatutuaren 15. artikuluari (Leg. Bild. 75) jarraituz, RTVEko lurraldeko ordezkariak, RTVEko Zuzendari Nagusiari igorri aurretik, aurkezten duen berariazko programazioaren proposamenari buruz eta irradi eta telebistako emisioen ordutegiari buruz aholkuak ematea. Publizitatea aukeratzeko eta norbere ekoizpenari buruzko irizpideak sartuko dira.

B.c) Behar den denboraz ezagutzea RTVEk eta bere sozietateek Nafarroan dituzten lanerako urteko planak, aurrekontuen aurreproiektuak eta urteko oroit-idazkiak, eta horren guztiaren berri ematea.

B.d) Zuzendari Nagusiari iritzia ematea Nafarroaren RTVEko eskualdeko ordezkariaren izendapenari buruz.

B.e) RTVEko eskualdeko ordezkariari zuzenean aholku ematea eta laguntzea, emititzen diren saioak Nafarroa osoan hartzeari dagozkion gai guztiei buruz, eta, oro har, bere karguari esleitutako eskumen eta funtzionamendu kontuei buruz.

B.f) RTVEko Administrazio Kontseiluari, eskualdeko ordezkariaren bidez, sei hilabete behin gutxienez, ordezkari horrek RTVERen Estatutuaren 8.1.k) eta 24. artikuluetan ezagututako eskubideak Nafarroako eremuan aplikatzeko erabiltzen dituen irizpideak igortzea.

B.g) Eskualdeko ordezkariari argibideak ematea RTVERen Estatutuaren 4 eta 24. artikuluetan ezarritako oinarri eta eskubideak programazioan betetzeari buruz, bai eta artikuluko horretako b) idazkia aplikatzeak sor ditzakeen ebazpen eta erabakiak zuzen betetzeari buruz ere.

B.h) Irizpenak ematea RNE, RCE eta TVEko estatu mailako Kontseilu Aholkuemaileetan Nafarroari dagozkion ordezkarien izendapenari buruz, beti ere Irrati eta Telebistaren Estatutuaren 9. artikulua agindutakoari jarraituz.

B.i) RTVEk Nafarroan duen Eskualdeko Ordezkariaren bidez, RTVERen Administrazio Kontseiluari igortzea Foru Komunitatearen interesen defentsan egoki irizten dituen izaera orokorreko gomendioak.

2. Noiz eta nola (Legea, Dekretuak, Erabakia...) sortu da aipatutako organo bakoitza?

Nafarroako Garraioen Kontseilua martxoaren 20ko 61/1985 Foru Dekretuaren bidez sortu zen. Dekretu hori ekainaren 17ko 164/1986 eta urtarrilaren 13ko 7/1997 Foru Dekretuen bidez aldatu zen.

B. RTVERen Nafarroako Kontseilu Aholkuemaileak martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legearen bidez sortu zen. Foru Lege hori otsailaren 20ko 1/1986 Foru Legearen bitartez aldatu zen neurri hein batean.

RTVERen Nafarroako Kontseilu Aholkuemaileak kontseiluaren beraren antolamendu eta funtzionamenduari buruzko bere Erregelamendua sortu zuen. Erregelamendu hori Nafarroako Gobernuaren erabakiz onetsi zen, 1988ko otsailaren 18an.

3. Zenbat bilera egin dituzte aipatutako organo aholkulariek azken hiru urteetako bakoitzean?

A. Nafarroako Garraioen Kontseiluaren azken bilera 1994ko apirilaren 13an egin zen.

B. RTVERen Nafarroako Kontseilu Aholkuemaileak:

1994an egindako bilerak: 5

1995ean egindako bilerak: 5

1996an egindako bilerak: 10

4. Zenbat dira organo aholkulari hauetan ordezkaturiko erakunde publiko nahiz pribatuak?

A. Nafarroako Garraioen Kontseiluan ondokoez dute ordezkaririk:

- Foru Komunitatearen Administrazioak.
- Nafarroako Udalek (mahaikide bat)
- RENFEk (mahaikide bat)
- Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbara Ofizialak (mahaikide bat)
- Erakunde sindikalek (3 mahaikide).
- Nafarroan legez eraturako bidaiari edo salgaierako garraiolarien elkarte profesionalek (3 mahaikide).
- Nafarroan legez eraturako Kontsumitzaile era Erabiltzaileen Elkarrekin (mahaikide bat)
- Nafarroako Garraio-Agentziek (mahaikide bat)

B. RTVEren Nafarroako Kontseilu Aholkuemailean parlamentari talde guztiak ordezkatuta daude, gainerako eserlekuen proportzionaltasuna gordez.

5. Zein izan da azken bi aurrekontu urtealdietan kontzeptu guztiak barne (langilegoa, funtzionamendu gastuak, ekitaldiak, hitzarmenak, dirulaguntzak eta abar) organo aholkulari bakoitzak izandako kostua?

A. Nafarroako Garraioen Kontseiluak ez du batere gasturik sortu azken bi aurrekontu-ekitaldietan.

B. Azken bi urte hauetan, RTVEren Nafarroako Kontseilu Aholkuemailearen kostua, kontzeptu guztiak barne, ondokoa izan da:

1995. urtea: 499.720 pezeta.

1996. urtea: 1.786.040 pezeta.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoez xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna

José Javier Sánchez Turrilas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak gizarreak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkuemaileei buruz egindako galderaren inguruan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Zenbat eta zeintzuk dira Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren organo aholkuemaileak, eskumena duen gai desberdinetan? Zer Departamenturen menpe daude eta nolako gaitan aritzen dira?

a) Nekazaritza Kontseilua. Urriaren 3ko 213/1984 Foru Dekretuaren bidez sortua. 5 erakunde eta Departamentuko kide batzuek osatzen dute. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria du buru. MAPAren Ordezkaritza Probintziala ere Kontseiluko kidea da. Urtean behin bildu ohi da, eta beharrezkoa bada egoera berezietan. Kontseiluak duen kostu bakarra erakundeetako ordezkarien dieta eta joan-etorriak dira.

b) Behi-aziendaren saneamendu kanpainen jarraipen batzordea. 1986ko ekainaren 9ko Foru Aginduaz sortu zen. 1994an behin baino ez zen bildu; 1995ean beste behin. 1996an ez zen bildu. Batzorde horretan, Departamentuaz gainera, zazpi erakunde dute ordezkaritza. Ez du kosturik.

c) Ardi-ahutz aziendaren saneamendu kanpainen jarraipen batzordea. 1994ko abenduaren 2ko Foru Aginduaz sortu zen. Behin bildu zen 1995ean eta beste behin 1996an. Departamentuaz gainera, batzorde horretan bost erakunde dute ordezkaritza. Ez du kosturik.

d) Aujeskyren gaisotasuaren eta zerri-aziendaren beste gaisotasunen jarraipen batzordea. 1992ko otsailaren 24ko Foru Aginduaz sortua. Behin bildu zen 1994an, bi aldiz 1995ean eta beste behin 1996an. 1997. urtean bi aldiz bildu da. Bertan, Departamentuaz gainera, zazpi erakunde dute ordezkaritza. Ez du kosturik.

e) CUMASen (Nekazaritzako Makineria Erabiltzeko Kooperatibak) batzordea. 1997ko martxoaren 3ko Foru Aginduaren bidez sortua. Bi aldiz bildu da. Nekazaritza eta Abeltzaintza Zerbitzuaz eta EVENAz gainera hiru erakunde ordezkatuta daude bertan. Ez du kosturik.

f) Ekoizpen Integraturako Koordinazio Batzordea. Maiatzaren 26ko 143/1997 Foru Dekretuaren bidez sortua. Bertan ordezkaritza izanen dute oraingoz zehaztu gabe dauden erakunde publiko eta pribatuak. Ez da aurrekusi kosturik batere izatea.

g) Behi-aziendaren kontseilu aholkuemailea. Abeltzaintza arloko ITGaren barrenean sortua Administrazio Kontseiluaren 1996ko maiatzaren 8ko erabakiaz. Behin bildu zen 1996an eta beste behin 1997an. Departamentuaz gainera bost erakunde daude ordezkatuta. Ez du kosturik.

h) Ardi-aziendaren kontseilu aholkuemailea. Aurrekoa bezala, Abeltzaintza arloko ITGaren

barrenean sortu zen, Administrazio Kontseiluaren 1996ko maiatzaren 8ko erabakiaz. Behin bildu zen 1996an eta beste behin 1997an. Departamentua eta bost erakunde ordezkaturik daude.

i) Monogastrikoen kontseilu aholkuemailea (zaldiak, zeriak, untxiak). Abeltzaintzako ITGaren barrenean sortua hau ere, 1996ko maiatzaren 8an. Behin bildu zen 1996an eta beste behin 1997an. Departamentua eta zazpi erakunde daude ordezkaturik. Ez du kosturik.

j) Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen dibertsifikazio-baloraziorako kontseilu aholkuemailea. Aurreko hiruak bezala Abeltzaintza arloko ITGaren barrenean sortu zen Administrazio Kontseiluaren 1996ko maiatzaren 8ko erabakiaz. Behin bildu zen 1996an. Bertan ordezkaturik daude Departamentua eta zazpi erakunde. Ez du batere kosturik izan.

k) Estentsiboetarako kontseilu aholkuemailea. Nekazaritza arloko ITGaren Administrazio Batzordeak sortua 1996ko uztailaren 30ean. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren eta sei erakunderen ordezkariak daude bertan. Behin bildu zen 1996an eta beste behin 1997an. Ez du kosturik batere.

l) Hortofrutikulturako Kontseilu Aholkuemailea. Abeltzaintzako ITGaren barrenean sortua, aurrekoaren erabaki beraren bidez. Departamentuko eta sei erakundetako ordezkariak daude. Behin bildu da 1996an. Kosturik ez du,

m) Negutegietarako Kontseilu Aholkuemailea. Nekazaritzako ITGaren barrenean sortua, 1996ko uztailaren 30eko Administrazio Kontseiluaren erabakiaz. Departamentuaren eta lau erakunderen ordezkariak daude. Behin bildu zen 1996an eta beste behin 1997an. Ez du kosturik batere.

2. Departamentu honek ez du epe ertainera organo aholkuemaile gehiago sortzeko asmorik.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna

José Javier Sánchez Turrilas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak gizarteak eta herritarrek parte hartzeko organo aholkuemaileei buruz idatziz erantzun diezaioten egindako galde-

raren inguruan, Ramón Bultó Llevat Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Zenbat eta zeintzuk dira Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren organo aholkuemaileak, eskumena duen gai desberdinetan? Zer Departamenturen menpe daude eta nolako gaietan aritzen dira?

Bi kontseilu daude Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren menpean: Lanerako Prestakuntzarako Nafarroako Kontseilua (L.P.N.K.) eta Nafarroako Kooperatiben Kontseilua, biak Lan Zuzendaritza Nagusiari atxikiak.

2. Noiz eta nola (Legea, Dekretuak, Erabakia...) sortu da aipatutako organo bakoitza?

Lanerako Prestakuntzarako Nafarroako Kontseilua abenduaren 565/1995 Foru Dekretuaren bidez sortu zen. Indarrean sartu zen 1995eko abenduaren 15eko 154. NAO-n argitaratu bezain pronto. Kontseilu horretako kideen izendapena Lehendakaritza Kontseilariaren abenduaren 21eko 495/1995 Foru Aginduaren bidez egin zen (1996ko urtarrilaren 12ko 6. NAO). Haren antolamendu eta funtzionamendua Lanerako Prestakuntzarako Nafarroako Kontseiluaren 1996ko urtarrilaren 19ko erabakiaren (1996ko urtarrilaren 19ko 22. NAO) bidez ezarri zen, eta horri zegokion aktsuzenketa bat argitaratu zen geroago (1996ko martxoaren 27ko 38. NAO).

Nafarroako Kooperatiben Kontseilua Nafarroako Kooperatibei buruzko uztailaren 3ko 12/1989 Foru Legearen bidez sortu zen, eta haren Erregelamendua onesten zuen ekainaren 14ko 154/1990 Foru Dekretuaren bitartez garatu zen. Aurreko xedapenak aintzat hartuta, kooperatiben arloan aritzen da.

3. Zenbat bilera egin dituzte aipatutako organo aholkulariek azken hiru urteetako bakoitzean?

L.P.N.K.ak, sortu zenetik (urte eta erdi da) bost osoko bilera egin ditu eta Batzorde Iraunkorren zortzi bilera izan dira.

Nafarroako Kooperatiben Kontseiluak, azken hiru urte hauetan, hiru bilera egin ditu.

4. Zenbat dira organo aholkulari hauetan ordezkaturiko erakunde publiko nahiz pribatuak?

L.P.N.K.en ondoko erakundeek dute ordezkari-rik:

OSOKO BILKURAN:

• Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa:

Lan Zuzendaritza Nagusia: 4 ordezkari (Burua, buruordea, idazkaria eta mahaikide bat)

Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia: ordezkari bat.

Industri Zuzendaritza Nagusia: ordezkari bat.

Nafarroako Lan Osasunaren Institutua: ordezkari bat.

- Sindikatuak:

UGT: 2 ordezkari

CCOO: ordezkari bat

ELA-STV: ordezkari bat.

LAB: ordezkari bat.

- Enpresarien Elkarteak: 4 ordezkari.

• Gizarte Ekonomiako enpresen entitate edo elkarteak: ordezkari bat.

- Laneko Prestakuntza Zentroak: 2 ordezkari.

Osoko Bilkuran, guztira: 19 kide.

BATZORDE IRAUNKORREAN:

• Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa:

Lan Zuzendaritza Nagusia: 3 ordezkari (Burua, buruordea eta idazkaria)

- Sindikatuak:

UGT: ordezkari bat.

CCOO: ordezkari bat.

- Enpresarioen elkarteak: 2 ordezkari.

• Laneko Prestakuntzako Zentroak: ordezkari bat.

Batzorde Iraunkorrear, guztira: 8 kide.

Nafarroako Kooperatiben Kontseiluan ondokoak daude ordezkaturik:

- Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa:

Lan Zuzendaritza Nagusia: 3 ordezkari (Burua, buruordea eta idazkaria)

Ogasun Zuzendaritza Nagusia: ordezkari bat.

Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia: ordezkari bat.

- Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasuna (N.N.K.B.): 5 ordezkari.

5. Zein izan da azken bi aurrekontu urtealdietan kontzeptu guztiak barne (langilegoa, funtzionamendu gastuak, ekitaldiak, hitzarmenak, dirulaguntzak eta abar) organo aholkulari bakoitzak izandako kostua?

Lanerako Prestakuntzarako Nafarroako Kontseiluan ez dago bertaratze-dietarik. Langileen, funtzionamendu gastuen eta abarren kostuak Kontseiluari atxikiriko langile funtzionarioen kostu edo gastu orokorren kargura egiten dira (kasuan kasuko aurrekontu-kontusailetan). Jarduera eta dirulaguntzei dagokienez, azpimarratzekoa da Kontseiluak Laneko eta Etengabeko Prestakuntzarako dirulaguntzak emateari buruzko informazioa ematen duela. Dirulaguntza horiek urtean 825 milioi pezeta izan ziren 1996. urtean, eta 915 milioi 1997. urtean.

Nafarroako Kooperatiben Kontseiluak ez du inolako aurrekontu-kontsignaziorik gastuei aurre egiteko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17an

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

“Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako kapital transferentziak” izeneko 13620-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak “Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako kapital transferentziak” izeneko 13620-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 23ko 47. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 12a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako kapital-transferentziak izeneko eta 624.000.000 pezetatan zenbaturiko 13620-5 aurrekontu-lerroari buruz honakoa jakin nahirik:

1.- Burutze-egoera, honakoa zehaztuz: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua.

2.- Arretagai den kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnena ere,

Carlos Cristóbal jaunak eginiko parlamentu-galderari erantzunez, honakoa agertzen du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak:

1.- Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzako Aurrekontu Esleipenaz diharduen Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 22. artikulua araberan, Unibertsitate horrentzako kapital-transferentziak bertako gerentziak eskatu ahala aginduko dira, eta eskaeran transferentzia horien zergatia den gas-tua egin dela frogatu behar da.

1997ko ekainaren 24an NUPek Unibertsitateko Irakaskuntza eta Ikerketa Zerbitzuan inongo eskaera edo frogarik aurkeztu ez duenez gero, kontusailaren burutze-maila zero da.

2.- Kontusaila burutzeko aurreikusi diren ekintzei dagokienez, lehen aipaturiko 22. artikuluan adierazitakoak izango dira.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 24a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

“Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako dirulaguntza” izeneko 13530-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak “Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako dirulaguntza” izeneko 13530-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 23ko 47. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 12a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako dirulaguntza izeneko eta 3.896.074.000 pezetatan zenbaturiko 13530-6 aurrekontu-lerroari buruz honako hau jakin nahirik:

1.- Haren burutze-egoera, zera zehaztuz: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua.

2.- Arretagai den kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehazpena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnena ere, Carlos Cristóbal jaunak eginiko parlamentu-galderari erantzunez, honakoa agertzen du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak:

1.- Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzako Aurrekontu Esleipenaz diharduen Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 22. artikulua araber, Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzako ohiko transferentziak aurreraturiko hiruhilabetekoka

aginduko dira orokorki, beharrian haundiagoak frogatzen direnean ezik.

Ildo honetan, aurrekontu-zehazpena jarraian adierazten dena da:

- Hasierako aurrekontua: 3.896.074.000 pzta.
- Aurrekontu bateratua: 3.896.074.000 pzta.
- Aurrekontu baimendua: 1.948.037.000 pzta.
- Aurrekontu erabilia: 1.948.037.000 pzta.
- Aurrekontu gauzatua: 1.948.037.000 pzta.

Beraz, guztira burutu dena aurreikusitako dirulaguntzaren zenbatekoaren %50a da.

2.- Egindako administrazio-ekintzak hauek dira: Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzako bi Foru Agindu ematea. Honako hauek:

– Otsailaren 13ko 38/1997 Foru Agindua, 974.018.000 pezetako zenbatekoa duena, 1997ko urtarrila, otsaila eta martxoko dirulaguntzari dagokiona.

– Martxoaren 25eko 100/1997 Foru Agindua, zenbateko bera duena, 1997ko apirila, maiatza eta ekaineko dirulaguntzari dagokiona.

3.- Egin behar diren ekintzak uztaila, abuztua eta irailari dagokien hirugarren ordainketa eta urria, azaroa eta abenduari dagokien laugarren ordainketa dira, horiek guztiak indarreko ekitaldi ekonomikokoak.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 24a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.800 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta, 12, 3</p> <p>31002 IRUÑEA</p>
--	---